

OROITIDAZKIA

2014



2014



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE

AURKIBIDEA

| | | | |
|----------------------------------|----|--|----|
| AURKEZPENA | 2 | | |
| 1. ERAKUNDEAREN JARDUERAK | 3 | III. Egiturazko batzordeak | 25 |
| I. Barne jarduera | 3 | III. 1 Argitalpen batzordea | 25 |
| II. Kanpoko jarduera | 9 | III. 2 Azkue Biblioteka eta Artxiboa batzordea | 25 |
| III. Bestelakoak | 18 | III. 3 IKT batzordea | 25 |
| | | III. 4 <i>Erlea</i> aldizkaria | 25 |
| 2. AKADEMIA JARDUERA | 19 | IV. R. M. Azkue Sariak | 26 |
| I. Iker Saila | 19 | 3. ERAKUNDE ZERBITZUAK | 28 |
| I. 1 Hiztegegintza | 19 | I. Azkue Biblioteka eta Artxiboa | 29 |
| I. 2 Gramatika | 20 | II. Onomastika zerbitzua | 29 |
| I. 3 Dialektologia | 20 | III. Argitalpen zerbitzua | 30 |
| I. 4 Onomastika | 21 | IV. Informatika eta Telekomunikazio zerbitzua | 31 |
| I. 5 Literatura | 22 | V. Prentsa eta Komunikazio zerbitzua | 31 |
| I. 6 Fonetika eta Fonologia | 23 | VI. Jagonet zerbitzua | 31 |
| II. Jagon Saila | 23 | 4. HERRI ADMINISTRAZIO ETA ERAKUNDEAK | 32 |
| II. 1 Corpus batzordea | 23 | 5. WEBGUNEA ETA GIZARTERATZE LANA | 41 |
| II. 2 Euskalkien lantaldea | 23 | 6. BALANTZE ETA GALDU-IRABAZIEN KONTUA | 43 |
| II. 3 Sustapen batzordea | 23 | I. Balantzea | 44 |
| II. 4 Joanes Etxeberri egitasmoa | 24 | II. Galdu-irabazien kontua | 45 |



Xabier Kintana
Euskaltzaindikoko idazkaria

AURKEZPENA

EKINARI JARRAIKIZ

Urtero bezala, aurten ere Euskaltzaindiak bere *Oroitidazkia* aurkezten du, 2014. urtean zehar Euskaltzaindiak, bere betekizunak konplitzeko, bete dituen zereginen zerrenda eskaintzeko. Luzaro jo gaituen krisia, zorionez, amaitzen ari dela dirudi, eta etorkizun hobea iragartzen digute ekonomialariek. Hala biz!

Bitartean, geure indarren eta baliabideen arabera, erakundeen laguntza eskergaitzari esker, Euskaltzaindiak bere bidetik segitu du, iaz onarturiko plangintzako helburuak etengabeki betetzen, hizkuntza ikertzen, beraren barne erregelak aztertzen eta ahozko eta idatzizko erabilera hedatuenak eta onartuenak gomendatzen, informatikak eskaintzen dizkigun datuekin baliatuz.

Izkribu honetan, Akademiak bere batzorde eta lantaldeen bitartez azken urtebetean buruturiko lanen zerrenda eskaintzen du, diru publikoaz finantzatuak izan direlako, bidezkoa eta beharrezkoa den bezala.

Bere jarduna aurrera eramateko dituen batzordeak pixkanaka eraberritzen ari dira, gugandik doazen osakide batzuek utziriko lekua beste batzuek betetzen dute, eta erakundeak, lehengoen eta oraingoen esperientziari esker lanean segitzen du, gizartearekiko daukan betebeharra ahalik eta ongien betetzen ahaleginduz.

Deus gutxi balio du badenik ere ez dakigunak. Horregatik, gure Akademiak egiten duena plazaratu beharra dauka, eta jendeagana helarazi, horrek fruiturik emanen badu. Euskaltzaindia jendearen galderak erantzun eta informazio nahia asebetetzeko bere web orria etengabe berritzen saiatzen da, geure baliabide zoritxarrez mugatuek uzten diguten neurrian.

Baina Euskaltzaindia ez da euskaraz arduratzen den erakunde bakarra, badira beste talde eta pertsona batzuk, zein bere arloan, antzeko lanean dihardutenak. Horietako asko diktaturaren garaitik dihardute horrelako lanetan, maiz oso isilik, eta ia-ia ezezagun. Hedabideek bestalde, maiz garrantzi handiagoa eskaintzen diete kirolari edo profesional batzuei, eskuarki beren lanagatik diru-mordoa jasotzen dutenei, kulturaren eta hizkuntzaren zerbitzari apal horiei baino. Gure Akademia, bere neurrian, bidegabekeria hori zuzentzen ere ahalegintzen da. Iaz ere, horrelako merezimenduak gogoan izanda, euskaltzain ohorezkoak izendatu zituen, esker oneko aitormenean. Aurreko urtean izendatutako urgazleei ere diplomak eman zizkien.

Euskarazko irakaskuntzaren alde ere agertu nahi du bere burua Euskaltzaindiak, bai horren aldeko giro soziopolitiko dagoenean eta, batez ere eta oso bereziki, aurkako giroa denean ere, ikastolen eta euskal eskola publikoaren fabore. Literatur txapelketen bitartez idazleen lana bultzatu nahi du, eta arlo horretan gaztetxoenei eragin, horiengan gure bihar-etziko etorkizuna datza eta.

Gure hizkuntza ikertzeko batzar, kongresu, euskal liburuak erazagutzeko azokak, euskarazko irakaskuntzaren aldeko elkarretaraldiak, maila askotakoak, baina maiz, zoritxarrez, oso beharrezkoak oraindik. Horiekin guztiokin ere egon nahi du Euskaltzaindiak, zoriontzeko eta lanean irauteko adorea emateko. “Ezina ekinez egin” gogoratu zigun Larramendik, eta ekina maiz gogorra izaten den arren, ez genuke ahantzi behar horixe dela gauzen arrakastaren oinarrietako bat.

1 ERAKUNDEAREN JARDUERA

I. BARNE JARDUERA

Euskaraz, hau da, euskal hizkuntzaz arduratzen den erakunde ofiziala da Euskaltzaindia (1919). Hizkuntzaren corpusaz arduratzen da, baina, halaber, baita berorren estatus sozialaz ere. Hortaz, bi sail ditu Euskaltzaindiak, Iker eta Jagon sailak, bere jardueraren baitan.

Akademiak ezagumendu ofizial osoa du, Espainian Erret Akademia bezala (1976), eta Errepublikan Frantsesean Onura publikoko erakunde gisa (1995). Bestalde, bai Gernikako Estatutuak -abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoan-, bai eta Nafarroako Gobernuak ere -abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legean- euskarari dagokionean Euskaltzaindia dela erakunde aholku-emaila ofiziala aitortzen dute.

Euskaltzaindiaren jarduera akademikoa batzorde, egitasmo eta lantaldeen bidez egiten da, eta langintza horien emaitzak giza baliabide eta azpiegiturazko zerbitzuekin antolatzen eta gauzatzen dira. Zerbitzu hauek, bestalde, ezinbestekoak dira herritarrei nahiz erakundeei erantzuteko.

Akademiaren egoitza Bilbon kokatu da. Bilbon egin ohi dira hileroko Osoko bilkurak bai eta Zuzendaritzakoak ere, nahiz eta Donostian zein beste toki batzuetan ere tartekatzen diren. Normalean, hilean bi aldiz biltzen da Zuzendaritza. Erakundearen gobernuak, egitasmoen arta izatea eta, orobat, barne jardunbidearen agintea eta erantzukizuna dagozkio Zuzendaritzari. Aurten 23 bilera egin ditu.

Bestalde, batzorde, egitasmo eta lantaldeak ere egoitzan eta ordezkariarekin biltzen dira. Egitasmo eta batzorde akademikoen lanen jarraipenaz eta bateratzeaz

idazkariordea arduratzen da. Lan hauen guztien berri Zuzendaritzari eta kudeatzaileari ematen die, eta ezarritako epeetan, dagokien Herri Administrazioei behar diren txostenak prestatuz. Herri Aginteekin sinatutako hitzarmenen arabera, Batzorde Teknikoarekiko egitasmo-harremanak ere burutzen ditu idazkariordeak, kudeatzailearekin batera.



Osoko bilkura Gasteizko Udaletxean

I.1. Erakundearen 2014ko ekintza nagusiak

| HILA | EGUNA | TOKIA | ZER |
|-----------|----------|----------------------------|--|
| Urtarrila | 31 | Donostia | Osoko bilkura Ageriko bilkura: hilberri-txostenak (*) |
| Otsaila | 28 | Bilbo | Osoko bilkura |
| Martxoa | 19 28 | Amezketza Bilbo | Ageriko bilkura: Fernando Amezketarraren omenez Osoko bilkura Ageriko bilkura: euskaltzain urgazle berriei diplomak ematea |
| Maiatza | 30 | Donostia | Osoko bilkura |
| Ekaina | 27 | Gasteiz | Osoko bilkura |
| Uztaila | 18 19 | Bilbo Elantxobe | Osoko bilkura Ageriko bilkura: ohorezko berriei diplomak ematea Ageriko bilkura: Imanol Berriatuaren omenez |
| Iraila | 26 | Zangoza | <i>Nafarroa Oinez</i> dela eta, Osoko bilkura |
| Urria | 31 | Baiona | Osoko bilkura |
| Azaroa | 14 29 | Donostia Markina-Xemein | XIX. Jagon jardunaldia Osoko bilkura Ageriko bilkura: Jabier Kaltzakorta euskaltzainaren sarrera hitzaldia |
| Abendua | 19 | Baiona | Osoko bilkura Ageriko bilkura: Joan Martí ohorezko euskaltzainari diploma ematea |

(*) Karmele Rotaetxe ohorezko euskaltzainaren omenez.

I.2. Adierazpenak

Euskaltzaindia D ereduaren alde Nafarroan

Urtarrilaren 31n, Bilbon eginiko hileran, Euskaltzaindiaren Osoko bilkurak honako adierazpen hau egin zuen:

“Nafarroako irakaskuntzan iragarri da datorren 2014-15 ikasturtean izena emateko epea. Urtero bezala, gurasoek aukera izanen dute beren umeak D ereduan matrikulatzeko, bai irakaskuntza publikoan, bai ikastolen sarean. Izan ere, ikastetxe horiek aukera paregabea eskaintzen diote Nafarroako gizarteari, gurasoei bereziki, nafar guztiona den hizkuntza eta kulturatik abiatuz, beren seme-alabak mundu zabalera begira hezi ahal izateko.

Euskara babestea, gizartearen maila guztietara zabaltzea eta erabilera sustatzea Euskaltzaindiaren zeregin berariazkoak dira, legez Euskaltzaindia baita euskararen erakunde aholku-emaile ofiziala. Hori horrela, Akademiak xede horiekin bat egitera gonbidatzen ditu Nafarroako haurren gurasoak eta beren seme-alaben heziketarako D eredia (euskarazko irakaskuntza Gaztelania irakasgaiarekin) hautatzera animatzen. Aldi berean, zorionak ematen dizkie eredu hori hautatzen duten gurasoei, bai eta eskerrak eta babes osoa ere, irakaskuntza publikoan zein ikastolen sarean urte luzez, zeregin horri osoki emanak eta emaitza bikainak lortuz lanean aritu diren eta ari diren irakasleei eta gainerako langileei. Bilbon, 2014ko urtarrilaren 31n eginiko Euskaltzaindiaren Osoko bilkuran aho batez onartua”.

Etzegarate izenari buruzko txostena

Euskaltzaindiko Onomastika batzordeak, Olatzagutian 2014ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, beste gai batzuen artean, *Etzegarate* izena zuen mendateari buruz txostena landu eta *Etzegarate* aldaera hobetsi zuen.

Txostenak daukan garrantziagatik, Idiazabalgo Udalari, Nafarroako Gobernuari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari igorri zitzairen.

I.3. Izendapenak

Euskaltzaindiaren hiztegia egitasmoaren zuzendaritza berria

Euskaltzaindiko Osoko bilkurak, urtarrilaren 31n Bilbon eginiko batzarrean, Andoni Sagarna euskaltzain oso eta Gipuzkoako ordezkaria *Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta Adibideak* egitasmoaren zuzendari izendatu zuen. Bilera berean, Miriam Urkiak, Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko lantaldearen buruak, zeregin horretan lagunduko ziola erabaki zuen Akademiak, eta Jose Antonio Aduriz euskaltzain urgazleak aholkulari lanetan jardungo zuela.

Ordura arteko lantaldearen teknikariek (Elizabet Kruzeta, Ainhoa Otamendi, Ane Loidi eta Gabriel Fraile) lanean jarraitu dute.

Ibon Sarasola egitasmoaren aurreko zuzendariak, Euskaltzaindiarekin izan zuen zuzendaritza-kontratua 2014. urtean ez berritzeko hartu zuen erabakia idatziz berretsi ondoren, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak proposatu eta 2014ko urtarrilaren 31n Bilbon eginiko Osoko bilkurak berretsi zuen egitasmo horren zuzendaritza berriaren osaera.

Hamabi ohorezko euskaltzain berri

Maiatzaren 30ean, Euskaltzaindiak Donostian egin zuen Osoko bilkuran, 12 ohorezko euskaltzain berri izendatu zituen. Hauek dira: Paulo Agirrebaltzategi, Angel Aintziburu, Dionisio Amundarain, Xabier Amuriza, Xipri Arbelbide, Antonio Campos, Maite Idirin, Mixel Itzaina, Jon Landaburu, Joan Martí, Martin Orbe eta Manu Ruiz Urrestarazu.

Euskaltzaindiak aldiro-aldiro izendatzen ditu ohorezko euskaltzainak, bere arautegiaren arabera, euskarari egindako mesede bikainengatik.

Sei kide berri *Euskera* agerkariaren aholku batzordean

Euskera Euskaltzaindiaren agerkari ofizialaren Aholku batzordeak sei kide berri ditu: Mixel Aurnague, Martine Berthelot, Martin Haase, Jose Ignazio Hualde, Xabier Itzaina eta Jon Landaburu. Agerkariaren Idazketa batzordeak proposatu zituen, eta Akademiaren Osoko bilkurak onartu, uztailaren 18an.

Euskera agerkariaren Idazketa batzordearen lehentasunetako bat agerkariaren irekiera instituzionala sustatzea izan da. Horretan sakonduz, Fundación Española para la Ciencia y la Tecnología (FECYT) erakundeak, aldizkari zientifikoaren kalitatea aztertzeko ebaluazioan *Euskera* agerkariari egindako gomendioek, asmo hori indartu zuten. Izan ere, besteren artean, agerkariko Aholku batzorderako nazioarteko eta izen handiko erakundetako kideak izendatzea proposatu zuen.

Hala, bada, Idazketa batzordeak, 2014ko uztailaren 8ko bileran, zenbait irakasle eta ikerlariren izenak bildu, horien lanak eta merituak aztertu, eta Osoko bilkurari 6 kideren izendapena proposatzea erabaki zuen. Osoko bilkurak izendapen hauek uztailaren 18an berretsi zituen.

Aholku batzordeko kide guztiak hauek dira: Mixel Aurnague, Miren Azkarate, Joxe Azurmendi, Martine Berthelot, Josu K. Bijuesca, Gidor Bilbao, Iñaki Camino, Ana Etxaide, Jose Ramon Etxebarria, Maite Etxenike, Patxi Goenaga, Ricardo Gomez, Manuel Gonzalez, Jose Ignazio Hualde, Itziar Idiazabal, Joseba Intxausti, Iñaki Irazabalbeitia, Jacinto Iturbe, Xabier Itzaina, Jabier Kaltzakorta, Jon Landaburu, Alberto Loizate, Juan Madariaga, Joan Martí, Eneko Oregi, Jon Ortiz de Urbina, Rosa Miren Pagola, Jose Antonio Pascual, Txomin Peillen, Ibon Sarasola, Joan Mari Torrealdei, Miriam Urkia, Xarles Videgain eta Juan Jose Zubiri.

I.4. Webgunea

Euskaltzaindiaren webgunearen bertsio mugikorra

Akademiaren webgunearen atal erabilienak eskuko telefonoan eskura izateko, webgunea moldatu du Euskaltzaindiak. Horren ondorioz, webgunearen bertsio arruntean ez ezik, *Hiztegi Batua*, *Orotariko Euskal Hiztegia* eta *Euskal Onomastikaren Datutegia* smartphone eta iPhone

motako telefonoentzako egokitutako moldean ere kontsulta daitezke. Eskuko telefonotik webgune osoa ikusteko ere aukera ematen da.

Lana Euskaltzaindiaren Donostiako ordezkaritzan garatu da, Akademiaren Informazio eta Komunikazioaren Teknologia (IKT) batzordearen gidaritzapean. Aurkezpena otsailaren 28an egin zen, Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian. Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Alazne Gorrotxategi informatikariak eman zituzten xehetasunak.



“Hitz-elkarketa” atal berria Euskaltzaindiaren webgunean

Uztailaren 3an, Euskaltzaindiak atal berri bat zabaldu zuen interneten, bere webgunean. “Hitz-elkarketa” du izena eta “Hiztegiak eta corpusak” atalaren barruan kokatu zen. Lana Miren Azkarate euskaltzain osoak eta Elixabete Pérez Gaztelu euskaltzain urgazleak prestatu zuten eta haiek egin zuten aurkezpena, Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Jon Artza Euskaltzaindiko Argitalpen zerbitzuko arduradunak lagunduta.

Bertan jaso dira LEF batzordeak (Lexiko Erizpideak Finkatzeko batzordeak) hitz-elkarketaz egin dituen lau lanak. Urteak behar izan dira horiek guztiak jendearen eskura jartzeko.

Lau lan, beraz, LEF batzordeak egindakoak, hitz-elkarketaren gaia sakonki jorratzen dutenak. Horietako hiru *-Hitz-Elkarketa/1* (1987), *Hitz-Elkarketa/3* (1991) eta *Hitz-Elkarketa/4* (1992)- eskura zituen erabiltzaileak paperezko edizioan, baina ez zegoen bertsio elektronikorik. Orain PDF formatuan ere kontsulta daitezke, webgunean.

Laugarren lana, *Hitz-Elkarketa/2* izenekoa, argitaratu gabe zegoen. Horren edukia plazaratu da uztailean, hiru bertsiotan: modu interaktiboan, ordenagailuan nabigatzeko; PDF formatuan; eta ePub bertsioan, irakurgailu elektronikoetara jaitsi eta bertatik nabigatzeko.



Miren Azkarate eta Elixabete Pérez Gaztelu "Hitz-elkarketa" ataria azaltzen Zangotzan izan zen osoko bilkuran.

Hitz-Elkarketa/2 izeneko lana Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren menpeko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren diru-laguntzari esker jarri ahal izan zuen Akademiak bere webgunean.

Euskaltzaindiaren webgunearen eduki gehiago Creative Commons lizentziapean

Azaroan, Euskaltzaindiak eduki gehiago jarri zituen *Creative Commons* lizentziapean. Ordura arte bost ziren lizentzia horren menpe zabaltzen ziren lanak, eta azarotik aurrera bost gehiago gehitu zitzaizkien. Hauek dira lan guztiak: Arauak, Hiztegi Batua, Hiztegi Batu Oinarriduna, XX. mendeko Euskararen Corpus Estatistikoa, Orotariko Euskal Hiztegia, Literatura Terminoen Hiztegia, Lexikoaren Behatokiaren Corpora, Hitz-elkarketa, Izendegiak / Euskal Onomastikaren Datutegia (EODA) eta Jagonet galde-erantzunen datu-basea.

Euskaltzaindiak erabiltzeari eskaintzen dion baimen-mota zehatza honako hau da: Aitortu - EzKomertziala - Partekatu Berdin 3.0 Espainia.

Hortaz, Akademiak argitaratutako material horiek guztiak kopia, banatu eta jendaurrean komunikatu ahal izango dira, betiere egilea Euskaltzaindia dela beren-beregi aitortu eta begi-bistan jarriz gero, eta edukiak zabaltzeko lizentzia bera erabiltzen bada. Horretaz gain, ezin da lan horren erabilera komertzialik egin, eta lana aldatu edo lan eratorri bat sortzen bada, sortutako eduki horren banaketa, ezaugarri berberarekin egin beharko da.

Era berean, erabiltzaileak lan baimendunen zatiak barruratu ahal izango ditu lan sortu berrietan, lan berri horiek literatura arlokoak izan, artistikoak izan nahiz zientifikoak izan, baldin eta lan sortu berrian ageriko aipamena jartzen badu, aurretiazko lan bat erabili duela nabarmentzeko, eta, horrez gain, baimen honen baldintza guztiak betetzen baditu (Aitortu - EzKomertziala – Partekatu Berdin).



.eus domeinuaren aurkezpena

Domeinu berria: euskaltzaindia.eus

Abenduaren erdialdean, Euskaltzaindiak webgunearen helbide berria estreinatu zuen: euskaltzaindia.eus. Akademiaren helbide elektronikoa guztiak ere .eus-era aldatu ziren.

.eus domeinuak bere ibilbideari ekin zionetik, zazpi urte luze joan ziren. 2009ko urtarrilaren 9an, PuntuEus elkarteak aurkeztu zuen bere burua, agerraldi publiko batean. Lana, baina, urtebete lehenago hasi zen.

Euskaltzaindiak sorreratik bertatik parte hartu zuen proiektuan. Akademiak 2007. urtearen bukaeran izan zuen lehenbizikoz .eus domeinua sortzeko ekimenaren berri. Ondoren, 2008ko urtarrilaren 17an, ekimen horretan partaide izateko deituak izan ziren erakundeetako ordezkariak bildu ziren, eta horien artean Euskaltzaindiaren ordezkaria zegoen, Andoni Sagarna, alegia. Bilkura horretan parte hartu zutenek .eus elkartearen Zuzendaritza batzordea hautatu zuten eta Euskaltzaindiaren ordezkaria batzorde horren buru izatea erabaki zuten.

2012an, elkarteak PuntuEus Fundazioa sortu zuen, egitura juridiko hori beharrezkoa zela ikusi zelako. Urte horretan bertan Euskaltzaindiak Joan Mari Torrealda izendatu zuen bere ordezkari; orduz gozotik, Fundazioaren presidentea Torrealda da.

.eus domeinua duen aurreko webgunea apirilaren 15ean sarean ikusi ahal izan zen: (Domeinuak.eus). Bi hilabete geroago, ekainaren 28an, PuntuEus Fundazioak iragarri zuen egun horretan bertan aktibatu zirela lehen webguneetako domeinuak, 92 aitzindariaren eskutik. Aitzindarien Fasearen ondoren, abiarazte-aldia etorri zen eta, azkenean, abenduaren 3an, .eus domeinuaren fase irekia hasi zen.

Fase irekiaren hasiera ospatzeko, hain zuzen ere, abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, aktibatu ziren abiarazte-aldian erregistratutako .eus domeinu-izenak, 1.292 guztira. Era berean, domeinu-izenen erregistroa publiko orokorraren fasea martxan jarri zen.

Euskaltzaindiak domeinuaren erregistroarekin arazo tekniko batzuk izan zituen, eta, aipatu bezala, abenduaren erdialdera arte ezin izan zuen domeinua erabili, euskaltzaindia.eus, alegia.

592 Sarrera berri “euskararen historia soziala: argibide bibliografikoak” atalean

Euskaltzaindiak “Euskararen Historia Soziala. Argibide Bibliografikoak” atalaren datutegia eguneratu eta sarean jarri zuen abenduan. Eguneratze horren ondorioz, 592 sarrera berri erantsi ziren. Orotara, orain 5.033 sarrera bibliografiko ditu.

“Euskararen Historia Soziala. Argibide Bibliografikoak” atariaren xede nagusia honako hau da: Euskararen Historia Sozialari buruzko tresna bibliografikoak guztion eskura jartzea. Ataleko edukiak euskararen historia soziolinguistikoaz ari dira. Hizkuntzaren iraganaren eta euskal gizartean izan duen bilakaeraren berri ematen da, eta inguruko hizkuntzekiko harremanak ere kontuan hartzen dira.

“Euskararen Historia Soziala. Argibide Bibliografikoak” lanaren lehen bertsioa paperean argitaratu zen: liburu inprimatua 2011n eman zuen argitara Euskaltzaindiak, eta urtebete geroago, 2012an, Akademiak atal berria zabaldu zuen webgunean.

Aurreko lanak berrikustean, lan hauek egin ziren:

1. Hautatutako erreferentziak banan-banan egiaztatu, hainbat liburutegitan (Azkue, Habe, Koldo Mitxelena...).
2. Eremuka bateratu: egilea, izenburua, argitaletxea, etab. Izen-deituretarako Euskaltzaindiko Azkue Katalogoa erabili da eta horra jo behar du irakurleak,

zernahi argibide behar izanez gero.

3. Lanak hautatutako liburutegietan aurkitu eta informazio hori kode bidez jaso.
4. Sarrera bakoitzari gako-hitzak erantsi, horien arabera ere bilaketak egin ahal izateko.
5. Interneten irakur daitezkeen lanen estekak aurkitu.

Bestalde, aurreko sarreretan berregokitze lan batzuk egin ziren. Besteak beste, liburu edo artikuluen edizio digitalak banan-banan berriz egiaztatu eta behar ziren aldaketak burutu ziren. Hala, 250 esteka berri gehitu ziren eta beste 130 ordezkatu.

I.5. Hilberri-txostenak

Urtarrilaren 31n, Euskaltzaindiak Ageriko bilkura egin zuen Bilbon, Akademiaren egoitzan, 2013. urtean hil zen Karmele Rotaetxe ohorezko euskaltzaina omentzeko. Ekitaldian, omenezko hilberri-txostena irakurri zuen Xabier Altzibar euskaltzain urgazleak.



Xabier Altzibar, euskaltzainak eta eta Karmele Rotaetxe zenaren senitartekoak

II. KANPOKO JARDUERA

II.1. Gasteizko Olabide ikastolaren 50. urteurrenean

Otsailaren 12an, Gasteizko Olabide ikastolaren 50. urteurrena dela-eta, Gasteizen izan zen Euskaltzaindia, eta, besteren artean, ikastolari bere izena eman zion Aita Raimundo Olabideri eskaini zitzaion omenaldian parte hartu zuen.

Olabide ikastolak 50 urte bete zituen 2013ko abenduan. Urteurrena ospatzeko, ekimen ugari antolatu zituzten, horien artean Raimundo Olabideri egin zitzaion omenaldia. Bertan, Euskaltzaindiko Zuzendaritza eta Arabako euskaltzainak, eta Olabide ikastolako, Eusko Jaurlaritzako, Arabako Foru Aldundiko, Gasteizko Udaleko eta Jesuiten ordezkariak izan ziren. Ondoko hauek hartu zuten hitza: Ruper Ormaza Unesco Etxearen presidentek; Eneko Uriarte Olabide ikastolako presidentek; eta Andres Urrutia euskaltzainburuak. Ondoren, Olabide jaio zen etxearen aurrean, bere omenezko plaka jarri zen.



Arratsaldean, Euskaltzaindiko Zuzendaritzak bilera egin zuen ikastolan. Iluntzean, Goiuri Jauregian, Andres Urrutia euskaltzainburuak “Euskaltzaindia XXI. mendean: Ekin eta Jarrai” izeneko hitzaldia eman zuen.

II.2. “Desagertzeko arriskua duten europar hizkuntzez eta hizkuntza-aniztasuna europar batasunean” mintegia

Otsailaren 21ean, “Desagertzeko arriskua duten europar hizkuntzez eta hizkuntza-aniztasuna Europar Batasunean” mintegia egin zen Bilbon, eta bertan “Desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzez eta Europar Batasuneko hizkuntza-aniztasunari buruzko txostena”-ren egileek -Csaba Sándor Tabajdi Europako Parlamentuko Sozialisten eta Progresisten Aliantzaren Taldeko eta François Alfonsi Berdeak-ALEko Taldeko eurodiputatuak- parte hartu zuten. Euskaltzaindiak eta Sabino Arana Fundazioak elkarlanean antolatu zuten.

Erramun Osa Euskaltzaindiko idazkariordeak koordinatutako mintegian, aipatutakoez gain, beste eurodiputatu batzuk eta Eusko Jaurlaritzako, Bizkaiko Foru Aldundiko eta euskararen, hezkuntzaren eta euskal kulturaren esparruan diharduten zenbait erakunde eta elkartetako ordezkariak ere mintegian izan ziren. Hala, Izaskun Bilbao EAJ-PNVren eurodiputatuak, Patxi Baztarrika Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza sailburuordeak, Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Eusko Jaurlaritzako, Bizkaiko Foru Aldundiko eta euskararen, hezkuntzaren eta euskal kulturaren esparruan diharduten zenbait erakunde eta elkartetako ordezkariak ere parte hartu zuten.



Ezkerretik eskuinera: Ramón Tremosa, Csaba Sándor Tabajdi, Izaskun Bilbao, Andres Urrutia, Juan Mari Atutxa, François Alfonsi, Patxi Baztarrika eta Iñaki Irazabalbeitia.

“Desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzez eta Europar Batasuneko hizkuntza-aniztasunari buruzko txostena”, François Alfonsi korsikar diputatu eta Europako Parlamentuko Gutxiengo Talde-elkarteko presidentekideak koordinatua, gehiengo handiz onetsi zen Europako Parlamentuan 2013ko irailaren 11n. Aldez aurretik, proposamena Europako Parlamentuko Kultura eta Hezkuntza Batzordeak ere onetsi zuen, aho batez, 2013ko ekainaren 18an.

Txosten hori bera aurkeztu zen Bilbon eginiko mintegian. Aurkezpen horretan, Csaba Sándor Tabajdik datu batzuk jarri zituen mahai gainean, hala nola, Europar Batasunean 255 hizkuntza baino gehiago mintzatzen direla, eta horietatik 128 egoera larrian daudela, eta 90, oso egoera larrian. Horrek biztanleriaren %8ri -45 milioitik gora pertsonari- eragiten die. Europako Parlamentuko Sozialisten eta Progresisten Aliantzaren Taldeko eurodiputatuaren esanetan, egoerari buelta eman dakiok. Euskararen kasua aipatu zuen, “bizirik irautea ez ezik, aurrera egitea ere lortu baita”.

Nafarroako egoera ere kontuan hartu zuen, eta hauxe azpimarratu: “40.000 nafarren hizkuntza-eskubideak Foru Gobernuaren esku daude”. Eta frantziar estatuari dagokionez, honako hau adierazi zuen: “Ez du aitortzen frantsesa ez den beste hizkuntzarik, eta horrela Lapurdi, Nafarroa Behere eta Zuberoako milaka euskaldunen eskubideak urratzen ditu”. Hori dela-eta, europar instituzioei eskatu zien “presioa egin diezaiotela frantses gobernuari, Hizkuntza Gutxituen Gutuna berresteko konpromisoa bete dezan”.

II.3. Amezketan, Fernando Amezketarraren jaiotzaren 250. mendeurrenean

2014an bete ziren 250 urte Fernando Amezketarra jaio zela. Hori dela-eta, Amezketako Udalak “Fernando urtea” izendatu zuen 2014a, eta bertsolariaren omenezko hainbat ekitaldi sustatu zituen urte osoan zehar. Euskaltzaindia ere Amezketan izan zen, martxoaren 19an, ospakizunekin bat eginez.

Hala, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak bilera egin zuen Amezketako Udaletxean. Arratsaldean, Fernando Amezketarrari eskainitako plaka bistaratu zuten Kultur Etxean. Honela dio: “2014-3-19. Fernando Amezketarra jaio zeneko 250. urteurrenean eta bere izeneko Kultur-Etxe honetan, herriko Udalak eta Euskaltzaindiak jarritako oroigarria”. Ekitaldian, Yolanda Gorostidi Kultura

zinegotziak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak hitz egin zuten, eta Bixente Gorostidik bertso batzuk bota zituen.

Ondoren, hitzaldi bana eman zuten Pello Zabalak -"Zer izan da Fernando niretzat"- eta Jose Mari Oterminek -"Zer dakigu Fernandoz?"-.

II.4. Euskaltzain urgazle berriek diplomak jaso dituzte

Martxoaren 28an, Euskaltzaindiak 2013an izendatu zituen euskaltzain urgazleei diplomak eman zizkien. Ekitaldian hamahiru euskaltzain urgazle izan ziren eta honela dioen diploma bana jaso zuten: "Euskaltzaindiak euskararen alde orain arte egin dituen lanen esker-erakutsiz eta gerokoan pizgarri, urgazletzat hartu du".

Hauek dira 2013an izendatu zirenak: Iñaki Aldekoa, Kaxildo Alkorta, Iñaki Amundarain, Nagore Etxebarria, Beatriz Fernandez, Juan Garzia, Antton Gurrutxaga, Patxi Juaristi, Gerardo Luzuriaga, Elena Martinez de Madina, Felix Mugurutzza, Manu Ormazabal, Erramun Osa eta Iratxe Retolaza.

Dorleta Alberdi euskaltzain urgazle eta kazetariak aurkezpen lanak egin zituela, urgazle berriek diploma eta Euskaltzaindiaren ikurra jaso zituzten ekitaldian. Bestalde, musika izan zuten lagun bertaratutakoek. Izan ere, Pier Paul Berzaitz eta Joxan Goikoetxea musikariek hartu zuten parte omenaldian eta Nemesio Etxanizek, Piarres Topet "Etxahun"ek edota Xabier Letek idatzitako poema musikatuak interpretatu zituzten.

II.5. Ohorezko euskaltzain berriek diplomak jaso dituzte

Uztailaren 18an, Bilbon eginiko ekitaldi batean, maiatzean izendaturiko ohorezko euskaltzainei diploma eta domina eman zizkien Akademiak. Joan Martí izan ezik, beste guztiak bertan izan ziren. Hauek izan ziren: Paulo Agirrebaltzategi, Angel Aintziburu, Dionisio Amundarain, Xabier Amuriza, Xipri Arbelbide, Antonio Campos, Maite Idirin, Mixel Itzaina, Jon Landaburu, Martin Orbe eta Manu Ruiz Urrestarazu.



Diploma jaso zuten euskaltzain urgazleak



Ohorezko euskaltzain berriak

Hilabete batzuk geroago, abenduaren 19an, Donostiako Luis Villasante Euskararen Ikergetzan, Joan Martík eskuratu zituen Euskaltzaindiko diploma eta ikurra.



II.6. Imanol Berriatuaren jaiotzaren mendeurrena

Uztailaren 19an, Elantxobeko Udalak eta Euskaltzaindiak Imanol Berriatua omendu zuten, bere jaiotzaren mendeurrenean.

Eguneko egitaraua Gorgonio Renteria Kultur Etxean hasi zen, bertan egin baitzen Imanol Berriatuaren bizitzari buruzko erakusketa birtuala. Xabier Kintana Euskaltzaindiko idazkariak eta Pruden Gartzia Azkue Bibliotekako zuzendariak eman zituzten azalpenak.

Ondoren, Ageriko bilkura egin zen. Hizlariak hauek izan ziren: Koldo Olagibel alkatea, Juan Luis Goikoetxea euskaltzain urgazlea, Xabier Kintana euskaltzain osoa eta Andres Urrutia euskaltzainburua. Hitzaldiak entzun ondoren, ohorezko aureskua dantzatu zuten, eta Talaiako goialdean bistaratu zen Elantxobeko Udalak eta Euskaltzaindiak Imanol Berriatuaren omenez egin duten oroitarria. Honela dio: “Imanol Berriatua Ibieta. Jaiotzaren mendeurrena. 2014. Gure artean hitz egin”.

Horren ostean, bi erakundeek beste plaka bat eman zioten Imanol Berriatuaren ilobari. Plaka horretan omenduaren erretratua agertzen da, eta berak 1952an Andima Ibinagabeitiari bidali zion gutunaren zati bat: “Ai, gure Izaro’ko komentu zaharra! Bagagoz emen aski, komentu ori edeki gura dugunok. Baita, euskera errukarria iaso nahi dugunok ere. Erein dezagun gogoz, eta bilduko dugu noizbait fruitua”.

II.7. Zangozan, Nafarroa Oinez festarekin bat eginez

Urtero bezala, Nafarroa Oinez Nafarroako ikastolen aldeko festarekin bat egin, eta irailaren 26an Zangozan izan zen Euskaltzaindia.

Goizean, Angel Navallas Zangozako alkateak ongietorria eman zien euskaltzainei. Udalaren izenean, alkateak “Zangozako Udalak Euskaltzaindiari, Zangozako Udaletxean ospatutako bileraren oroimenez. 2014/9/26” dioen oroigarria eskaini zion euskaltzainburuari.

Ondoren, Euskaltzaindiak Osoko bilkura egin zuen, Udaletxean. Batzarra amaitu zenean, 2014ko Nafarroa Oinez antolatu zuen Zangozako ikastola bisitatu zuten euskaltzainek. Ondoren, ikastolako arduradunek opari batzuk eman zizkioten Euskaltzaindiari: “Zugan datza euskararen geroa” esaldia duen oroigarria eta Jose Javier Abadía margolariak egindako Santa Maria elizaren fatxadaren urmargoa. Bestalde, euskaltzain guztiek jaso zuten Zangozako ikastolak 25 urte bete zituenean kaleratu zuen liburua.

Arratsaldean, Zangoza herria bisitatu zuten Juan Cruz Labeaga historialariaren gidaritzapean.



Zangozako ikastolan: irakasleak, ikasleak eta euskaltzain osoak.

II.8. Baionan “Toponimia Administrazioaren eguneroko jardunean” ikastaroan

Urriaren 7an, “Toponimia Administrazioaren eguneroko jardunean” ikastaroaren edizio berri bat, laugarrena, egin zen Baionan, Euskararen Erakunde Publikoaren egoitzan. Ikastaroaren xedea honako hau zen: herrietako toponimia ikertu, finkatu, erabili eta zaintzea. Euskaltzaindiak eta EEPk elkarlanean antolatu zuten.

Ikastaroa Mikel Gorrotxategi, Felix Mugurutz eta Nerea Alaba Euskaltzaindiko Onomastika batzordeko kideek eman zuten. Naroa Gorostiagak, EEPren izenean, sarrerako hitzak esan zituen eta Xarles Videgainek, Euskaltzaindiarenean, ikastaroaren nondik norakoa azaldu zuen eta onomastika alorrean Akademiak egindako lana nabarmendu zuen.

Ondoren, Felix Mugurutzak eta Mikel Gorrotxategik toponimia idazteko irizpideak azaldu, eta bereziki izenak arautzeko arrazoi eta bideak nabarmendu zituzten, baita lan hori burutzeko eman behar diren pausoak ere.

Amaitzeko, parte-hartzaile guztiek taldeka egin zuten lan. Nerea Alabak, Mikel Gorrotxategik eta Felix Mugurutzak gidaturik, herri bateko toponimia aztertu zuten, arautze-proposamenak eginez eta erabakiak adostuz.

II.9. Ondarearen Europako Jardunaldiak

Urtero lege, 2014an ere Ondarearen Europako Jardunaldiak antolatu zituen Bizkaiko Foru Aldundiak. “Etxez etxe” izenburupean, ekitaldi ugari egin ziren urrian zehar, Bizkaiko herri askotan. Euskaltzaindiak “Euskal Herriko etxeak: etxeen izenak eta esanahiak” izeneko hitzaldi zikloa eta erakusketa bi-bata digitala, bigarrena liburuez osatuta- antolatu zituen.

Euskal kulturaren “etxe” kontzeptuak alderdi anitz dauka eta oso garrantzitsua da. Hori horrela, etxearen eta euskararen arteko lotura hizpide izan zuten hiru hitzaldi antolatu zituen Euskaltzaindiak: “Etxea eta euskalkiak”, “Etxeen izenak” eta “Etxea eta euskal literatura”. Hizlariak Aritz Abaroa, Mikel Gorrotxategi eta Adolfo Arejita izan ziren.

Hala, urriaren 9an “Etxea eta euskalkiak” hitzaldia eman zuen Aritz Abaroa Euskararen Herri Hizkeren Atlasa egitasmoko teknikariak. Euskalkien ikuspuntutik heldu zion gaiari: baserria, borda, aldeatze, laborari etxea eta antzeko kontzeptuen arteko aldea ikusi zen.

Urriaren 16an, Mikel Gorrotxategi Onomastika zerbitzuko arduradunak “Etxeen izenak” (Goikoetxea, Bengoetxea, Aurrekoetxea, etab) gaia jorratu zuen.

Urriaren 23an, Adolfo Arejita euskaltzain eta Iker sailburuak “Etxea eta literatura” izan zuen hizpide. Etxearen sinbolismoa euskal literaturan aztertu zuen.

Erakusketari dagokionez, “Etxea XX. mendeko euskal pentsamenduan. Hiru intelektualen ekarpena: Agirre, Lhande eta Barandiaran” izena zuen, eta urriaren 31ra egon zen zabalik.

II.10. 2014ko Xalbador Eguna

Ohi bezala, Urepelen (Nafarroa Beherea), ospatu zen Xalbador Eguna, Fernando Aire “Xalbador” oroitzeko. Urriaren 18an eta 19an izan zen ekimena, eta urtero legez, Xalbadorrekin batera, beste pertsona bat omendu zuten. Oraingo honetan, Pierre Bordazarre “Etxahun Iruri” idazle, kantu eta pastoral egilea izan zen omendua.

Xalbador Eguna antolatzen duten Deiadarra elkarteak eta Euskaltzaindiak egitarau oparoa prestatu zuten. Besteak beste, urriaren 17an, larunbatean, François Rossek eta Mixel Etxekoparrek kantaldia eman zuten. Bestalde, aldiz, Etxaun Iruriri buruz aritu ziren, mahai-inguru batean, Jean Mixel Bedaxagar, Allande Etxahun, Luxi Etxekopar eta Mixel Etxekopar. Igandean, honako bertsolariak aritu ziren: Ibai Kanpo eta Joanes Etxeberria bertsolari zuberotarrak, eta horien ostean Amets Arzallus, Sebastian Lizaso, Maialen Lujanbio, Juan Jose Eizmendi “Loidisaletxe II” eta Jose Luis Gorrotxategi. Gai-jartzailea Joxe Mari Iriondo izan zen.

Urepeleko Herriko Etxearen, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Euskadi Irratiaren laguntzarekin antolatu zen egitaraua.



Bertsolarien emankizuna Xalbador Egunean

II.11. XVIII. Jagon Jardunaldiak, “Euskararen biziberritzea Euskal Herriko hiriburuetan”

Azaroaren 14an, Akademiaren Sustapen batzordeak antolatutako, XIX. Jagon Jardunaldiak egin zituen Euskaltzaindiak Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikerlanean, “Euskararen biziberritzea Euskal Herriko hiriburuetan” izenburupean. Jardunaldiotan, euskarak hirietan eta hiriburuetan duen egoeraz hausnartu zen. Izan ere, Euskal Herriko hiriburuetan euskararen hazkundera handia izan bada ere, bere presentzia ez da hazi neurri berean. Hori dela-eta, gogoeta beharrezkotzat jo zuten Sustapen batzordeko kideek.

Euskal hiriburuetan, euskararen transmisioaren eta erabileraren alde zelan jokatu behar den aztertu zen jardunaldiotan eta egoera horren aurrean bide eta baliabide egokiak ireki beharra azpimarratu zuten parte hartzaileek.

Hala, bada, hiriburuetak bilakaera soziolinguistikoaz, hirietan antzematen diren hizkuntza-praktikaz edota hirietan euskaren rolaz hitz egin zen, besteak beste.

Andres Urrutia euskaltzainburuak, Juan Karlos Izagirre Donostiako alkateak eta Jean-Baptiste “Battitu” Coyos Jagon sailburuak hasiera eman zioten jardunaldiari. Ondoren, hizlari guztien txanda hasi zen. Hauek izan ziren parte-hartzaileak: Jon Aizpurua, Eduardo Apodaka, Xabier Aierdi, Aitor Zuberogoitia eta Pedro Zuberogoitia. Ondoren, mahai-inguru bat egin zen, honako hauek parte hartu zutelarik: Juan Karlos Izagirre Donostiako alkateak; Jean-Claude

Iriart Baionako herriko kontseilariak; Sabin Anuzita Bilboko Udaleko Euskara, Gazteria eta Kirol Saileko zinegotziak; eta Teresa Lasheras Iruñeko Udaleko Hezkuntza eta Kultura alorreko zuzendariak.

Amaieran, Sagrario Aleman Sustapen batzordeko buruak eta Erramun Osa idazkariak ondorioak irakurri zituzten.

Jardunaldian bertan, Juan Madariagak idatzitako *Euskara eta euskal gizartea XVII. eta XVIII. mendeetan* liburua aurkeztu zen.



Donostian izan ziren Jagon jardunaldiak

II.12. Xenpelar Dokumentazio Jardunaldietan

Azaroan, Euskaltzaindiak parte hartu zuen I. Xenpelar Dokumentazio Jardunaldietan. Jardunaldiok Xenpelar Dokumentazio Zentroak antolatu zituen eta euskal antzerkiaren dokumentazio beharrak izan zituzten hizpide. Bi egunotan egin ziren: azaroaren 20an, “Euskal antzerkiaren funtsak liburutegi eta artxibategietan” izenburupean, eta hilaren 27an, “Euskal antzerkiaren dokumentazio beharrak” gaia jorrazteko.

Pruden Gartzia Azkue Bibliotekako zuzendaria izan zen Euskaltzaindiaren ordezkaria eta azaroaren 20an mintzatu zen. Azkue Bibliotekan euskal antzerkiaren funtsak duten lekua azaldu zuen. Azkue Bibliotekako zuzendariarekin batera,

hauek izan ziren: Baionako Mediatekako Marie-Andrée Ouret; Euskal Museoaren Liburutegiko Marie-Hélène Déliart; Euskal Kultur Erakundeiko Pantxo Etchegoin; Koldo Mitxelena Liburutegiko Sorne Matxinena eta Frantxi Lopez Landatxe; Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiko Iñaki Goigana; eta Mauleko Sü Azia Elkarte Maddy Oihenart.

II.13. Izen Geografikoen batzorde espezializatuaren bileran, Madrilen

Azaroaren 20an, Madrilen, Espainiako Institutu Geografikoen egoitzan, bilera egin zuen Izen Geografikoen batzorde espezializatuak. Azken urteotan bezala, Mikel Gorrotxategi Onomastika zerbitzuko arduraduna bertan izan zen, Euskaltzaindiaren izenean.

Aipatu batzordea Geografiako Kontseilu Nagusiaren atal bat da, eta bere helburuen artean, izen geografiko edo toponimoen erabilera normalizatzea eta ezagutza bultzatzea dago. Bertan biltzen direnak izen geografikoetan adituak dira, eta Estatuako Administrazio Orokorreko eta autonomia erkidegoetako ordezkari gisa hartzen dute parte. Unibertsitateetako, hizkuntza akademietako eta toponimiarekin zerikusia duten bestelako erakundeetako ordezkariak ere badaude.

II.14. Jabier Kaltzakorta euskaltzain osoaren sarrera-hitzaldia

Azaroaren 29an, Jabier Kaltzakorta euskaltzain osoaren sarrera-ekitaldia egin zen Markina-Xemeingo Udaletxean. *Ahozko literatura hizpide* izeneko hitzaldia eman zuen. Adolfo Arejita euskaltzainak eman zion erantzuna.



II.15. R. M. Azkueren lan argitaragabeen digitalizazioa

Resurrección Maria Azkueren lan argitaratu guztiak bildu, katalogatu, sistematizatu eta digitalizatzen ari da *Jakin* Taldea. Egitasmoa Euskaltzaindiaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko hitzarmen bati esker gauzatzen ari da eta 2015ean amaituko da.

Josune Ariztondo Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura diputatuak, Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Joan Mari Torrealdai euskaltzain oso eta *Jakin* Taldeko kideak aurkeztu zuten egitasmoa, abenduaren 1ean. Azaldu zuten bezala, Azkue kapazitate handiko gizona izan zen: euskaltzainburua, idazlea, literaturgilea, kazetaria, musikagilea eta musika biltzailea, hiztegi-gilea, hizlaria, irakaslea, folklorista, herri literaturaren biltzailea, hizkuntzalaria, euskalaria, euskaltzalea.

Kazetari gisa idatzi zituen 713 artikulua eta 85 liburu burutu zituen. Liburu horietako lau lirateke “enblematikoak”: *Diccionario vasco-español-francés* (Hiztegia), *Cancionero popular vasco* (Kantutegia), *Morfología vasca* eta *Euskalerrriaren yakintza*.

Behin lana amaituta -esan bezala, 2015ean izango da- bilaketak katalogoaren arabera eta gaitegiaren arabera egin ahal izango dira. Lan osoko bilaketa eta egituraren bidezkoa ere aurreikusi dituzte.



Joan Mari Torrealdai, Miren Josune Ariztondo eta Andres Urrutia

II.16. Gabriel Arestiren *Harri eta herri* liburuaren edizio berria

2014an 50 urte bete ziren Gabriel Arestiren *Harri eta herri* argitaratu zela. Urteurrena ospatzeko, Euskaltzaindiak eta Gabriel Aresti Kultura Elkarteak -Gabriel Arestiren senideek eta Zenbat Gara elkarteak osatzen dutena- liburuaren edizio berri bat berrargitaratu dute: *Harri eta herri # 50 urte*. Abenduaren 4an aurkeztu zuten Bilboko Udaletxean.

Aurkezpenean ekimena sustatu zuten bi erakundeotako ordezkariak izan ziren: Andres Urrutia euskaltzainburua eta Xabier Monasterio Gabriel Aresti kultura elkarteak ordezkaria. Lana Bizkaiko Foru Aldundiaren, Bilboko Udalaren eta BBK Fundazioaren laguntzarekin argitaratu da; hori dela eta, Josune Ariztondo Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura diputatua, Ibon Areso Bilboko alkatea eta Gorka Martinez BBK Fundazioaren zuzendaria ere bertan izan ziren. Rafa Rueda musikariak eta Toti Martinez de Lezea idazleak ere parte hartu zuten aurkezpenean. Eurekin guztiekin batera, Gabriel Arestiren senideak izan ziren. Haiei, Meli Esteban alargunari eta Andere alabari, euskaltzainburuak Euskaltzaindiaren ikurra eman zien.

Bi liburuk osatzen dute argitalpen berria: batetik, Arestiren liburua eskaintzen da, 1964an argitaratu zen bezala. Bestetik, *Harri eta Herri # 50 urte. Artikulu bilduma* izeneko bigarren liburuan, zenbait euskaltzainek eta egilek idatziriko artikulua bildu dira. Horietako batzuek Aresti bera ezagutu eta tratatzeko aukera izan zuten; gazteagoek, aldiz, bere lanen bitartez ezagutu zuten idazlea. Hauek dira parte hartzen duten egileak: Joan Mari Torrealdai, Xabier Kintana, Anjel Lertxundi, Bernardo Atxaga, Karmelo Landa, Angel Zelaieta, Txomin Peillen, Ana Toledo, Arantxa Urretabizkaia, Harkaitz Cano, Unai Elorriaga, Aingeru Epaltza, Toti Martinez de Lezea, Miren Agur Meabe eta Kirmen Uribe.



Harri eta Herri # 50 urte liburuaren aurkezpene

II.17. IKT-ak mintegian

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren ekimenez, “Euskarazko IKTak” mintegia egin zen abenduaren 17an, Bilbon. Euskaltzaindiaren izenean, Iñaki Kareaga Informatika eta Telekomunikazio zerbitzuko arduradunak hartu zuen parte eta Euskaltzaindiaren webguneko hizkuntza-baliabideak aurkeztu zituen.

Profesionalei eta euskal ekonomiako sektoreei euskaraz eskuragarri dauden tresna eta baliabide teknologikoen berri ematea zen mintegiaren xede nagusia eta horretan ibili ziren, bakoitza bere arlotik, jardunaldian mintzatu ziren guztiak.

Iñaki Kareagak balizko hiru erabiltzaile-profil aurkeztu zituen: herritarra; euskalgintzako profesionala; eta ikertzailea. Eta horiek kontuan hartuz, *Euskal Onomastikaren Datutegia* (pertsona-izenak, deiturak, leku-izenak), *Hiztegi Batua*, *Jagonet* kontsulta zerbitzua, *Euskararen Herri Hizkeren Atlas* edota *Orotariko Euskal Hiztegia* izan zituen mintzagai.

II.18. Azokak

Sarako Liburu Azokan

Apirilaren 21ean, Pazko Astelehenean, Sarako Idazleen Biltzarra egin zen. Euskaltzaindiak hiru liburu aurkeztu zituen: *Le fondement moral des droits culturels de l'homme* (Kultura eskubideen oinarri etikoak), Piarres Charrittonena; *Amodioaren Martirra. Dolores emazte bat berthutez bethea*, Ernest Daudetena, Xabier Altzibar da edizio kritiko eta modernoa egin duena; eta *Zubererazko istorio, alegia eta ipuin irri-gingarri*, Jean-Baptiste “Battittu” Coyosek paratua.

Sarako Turismo Bulegoak eta Euskal Kultur Erakundeak antolatzen duten biltzarra herriko kiroldegian egin zen, urtero legez. 2014ko edizioak hiru lagun omendu zituen: Erramun Baxok soziolinguista eta ohorezko euskaltzaina, Manex Pagola idazle, kantari eta euskaltzain urgazlea eta Patrice Rouleau marrazkilaria.



Ezkerretik eskuinera: Andres Urrutia, Pierre Charritton, Frantxua Maitia, Xarles Videgain, Jean-Baptiste Coyos eta Xabier Altzibar

Bilboko Liburu Azokan

Euskaltzaindiak parte hartu zuen Bilboko Liburu Azokan. Maiatzaren 31tik ekainaren 9ra bitartean Areatzan egin zen Azokan, saltokia jarri zuen Akademiak eta urte osoan argitaratutako liburuak izan zituen salgai. Besteren artean, *Euskaltzaindiaren Hiztegia*, *Adierak eta adibideak*, *Erlea* aldizkariaren zenbakiak edota *Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren* liburukiak egon ziren Akademiaren saltokian.

Bestalde, Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekaren laguntzarekin antolatu zen “Euskal emakume idazleak” izeneko erakusketan parte hartu zuen Akademiak.

Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan

Urtero bezala, Durangoko Azokan izan da Euskaltzaindia. Abenduaren 5etik 8ra bitartean egin zen Azokan, saltokia jarri zuen Akademiak.

Besteren artean, *Eusker*a agerkari ofizialaren azken zenbakiak eta *Gasteizko Toponimia IV*, *Langraiz* argitalpena erakutsi zituen. Bisitari ugari hurbildu zen saltokira, eta batez ere, *Euskararen Herri Hizkeraren Atlasaren* edukietan jarri zuten arreta.

III. BESTELAKOAK

Euskaltzaindiaren zuzendaritzako kideen agerraldia Eusko Legebiltzarrean

Martxoaren 18an, Eusko Legebiltzarrearen Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol batzordearen aurrean agerraldia izan zuten Euskaltzaindiaren Zuzendaritzako ordezkariak. Guztien izenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak hartu zuen hitza eta, besteak beste, Akademiaren sorrera, izaera eta zereginak azaldu zituen. Laster ehun urte beteko dituen erakunde honen erronka eta helburu nagusiak ere aipatu zituen.

Euskaltzaindia zelan sortu zen gogoratu ostean, erakundearen helburu nagusiak gogoan izan zituen euskaltzainburuak. Hainbat arlo jorratu zituen Andres Urrutiak bere agerraldian, besteak beste orain arte eman diren pausorik nabarmenenak, bai eta etorkizunari begira Euskaltzaindiak mahai gainean dituen erronka eta ildo nagusiak ere.



Eusko Legebiltzarrena agerraldia: Andres Urrutia, Erramun Osa, Joseba Zabaleta, Xabier Kintana eta Adolfo Arejita.

Heriotzak

2014an ondoko euskaltzain hauek hil ziren: Jose Antonio Retolaza ohorezko euskaltzaina (martxoaren 12an) eta Xabier Aranburu euskaltzain urgazlea (uztailaren 10ean).

Euskaltzainak zenbakitan

| Euskaltzainak | 2013-12-31 | 2014-12-31 |
|---------------|------------|------------|
| Osoak | 24 | 24 |
| Emerituak | 5 | 5 |
| Ohorezkoak | 26 | 37 |
| Urgazleak | 147 | 146 |
| GUZTIRA | 202 | 212 |

2 AKADEMIA JARDUERA

Euskaltzaindiaren akademia jarduera batzorde, egitasmo eta zerbitzuen bidez garatzen da. Hileroko Osoko bilkurak arau maila ematen die batzordeetatik datozen hizkuntza-proposamenei.

Euskaltzaindiak bi sail nagusi ditu: Iker Saila eta Jagon Saila. Lau urterik behin berriztatzen dira sailburuak, batzordeak eta batzordekideak. Batzordekideez gain, aholkulariez ere baliatzen dira batzordeak. Lantaldeak ere sortzen dira, kasuan kasuko premien eta baliabideen arabera. Euskaltzain osoak, urgazleak eta esparru desberdinetako adituak biltzen dira batzorde horietan: unibertsitateetako eta institutueta irakasleak, hezkuntza munduko irakasleen euskalduntze-alfabetatze lanetan diharduten prestatzaileak, idazleak, komunikabideetako teknikariak, itzultzaileak, hiztegiak, administrazioko teknikariak eta beste.

I. IKER SAILA

I.1. Hiztegiak

Hizkuntza Akademia batentzako hiztegiak oinarri-oinarrizko eginkizuna da. Amaituta dagoen *Orotariko Euskal Hiztegiak* gain, Euskaltzaindiak beste bi proiektu garrantzizko ditu eskuartean: *Euskaltzaindiaren Hiztegia* eta *Hiztegi Batua*.

I.1.1 Euskaltzaindiaren Hiztegia (adierak eta adibideak)

Euskaltzaindiaren Hiztegia (Hiztegi Batua - 1. itzulia - Adierak eta adibideak) izeneko hiztegiaren oinarria Euskaltzaindiak onartua duen *Hiztegi Batua* da, lehen itzulian argitaratutako hitzak.

Euskaltzaindiaren Hiztegia (adierak eta adibideak) egitasmoa

Urte osoan zehar, sarrerak eta azpisarrera berriak sartzeko lanean aritu da. *Hiztegi Batua* bigarren itzulien hitz zerrendako sarrera eta azpisarrek -adieraz, azpiadieraz, definizioz eta adibidez hornituz- osatzen jarraitu da Euskaltzaindiaren Hiztegia.

*Hiztegi Batua*ren bigarren itzuliko *joraketa-pozadera* hitzen arteko sarrerak erredaktatu dira eta lehenengo itzuliko hainbat sarrera berrikusi dira.

Bestalde, *Orotariko Euskal Hiztegia* (OEH) herri literaturako adibideez osatu da. Lan nagusia Auspoa bildumatik ateratako corpus bateko adibideekin OEH osatzea izan da. *Guda - zuzutzgabe* hitzen arteko zatia adibideez osatu da.

I.1.2. Hiztegi Batua

Hiztegi Batua hiztegi arauemailea dugu. Hitzen forma estandarrak biltzen ditu. Euskaraz idazterakoan sortu izan den hainbat zalantzari erantzuna ematera dator, hala nola beste hizkuntza batzuetan jatorria duten nazioarteko hitzen formak, nazioartekoak izan ez arren erabilera zabala dutenak, hainbat herrialdetako biztanleak adierazten dituzten hitzenak, arazo konplexuagoak izan ditzaketen forma berrienak eta beste zenbait arazo zituztenak finkatzen ditu.

Hiztegi Batuko lantaldea

36 milioiko corpus eguneratua oinarritutako 3. aztergaia landu da. Lana burutu ondoren, 43,4 milioi testu-hitz dituen corpusa osatu da 2014an.

Hiztegi Batuaren bigarren itzuliko zerrenda osagarriak lantzen aritu da. *A -ponpoxo* multzoa osatzen duten formak aztertu eta adostu dituzte.

Aurreko urteetako harremanei eutsiz, Euskaltzaindiak eta UZEIk lankidetzan jardun dute 2014an ere.

I.1.3. Zientzia eta Teknika Hiztegia biltzeko egitasmoa

Egitasmo hau 2008an hasi zen lanean, eta bere helburua hau da: zientzia eta teknologia arloetan erabiltzen diren hitz oinarritzakoak bildu eta aztertu, gero horiek Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuan txertatu ahal izateko.

2014an, lantaldeak Kimikako Oinarritzako Lexikoa osatzeko lehen etapari ekin dio. Bestalde, Matematika, Fisika eta Astronomiako “oinarritzako lexikoak” prestatu dira eta argitaratzeko prest utzi.

I.1.4. Euskal Hiztegi Etimologikoa egitasmoa

Euskal hitzen orain arteko ikerketa historiko eta etimologikoetatik abiatuta, eta *Orotariko Euskal Hiztegi*an bildutako informazioa baliatuta, euskal hitzen jatorria eta historia modu sistematikoan aztertzea da asmoa.

Aurten 600 hitzen aurre-erredakzioa egin da eta beste 325 bat hitzen erredakzio aurreratua burutu. Dagoeneko amaituak dira 162 hitz-familia (1.100 hitz).

I.1.5. Lexikoaren Behatokia egitasmoa

Hiztegi Batuko lantaldeak egungo euskararen eskaerei erantzuneko dien corpus handiago baten beharra ikusi zuen, gaurko testuak etengabe bilduko dituenak. Jokabide horren behatokia da, beraz, lantaldeak bultzatu duen corpus berria: Lexikoaren Behatokia. UZEI, Elhuyar eta EHUko Ixa taldearekin garatuko du Akademiak.

8.103.000 testu-hitz dagozkien testuak katalogatu, prozesatu eta corpus egituratua txertatu dira. Urteko lanak amaituta, kontsultarako aplikazioa Euskaltzaindiaren webgunean jarri da. Hainbat komunikabide eta elkarterekin hitzarmenak sinatu ditu Euskaltzaindiak, ekoiztu dituzten euskarazko testuak Akademiaren eskuetan jar ditzaten. 2014an, *Herria*, *Karmel*, Sabino Arana Fundazioa, Laneki eta Elkarrekin izenpetu ditu akordioak.

I.2. Gramatika

Batzordeak Euskal Gramatikaren eskema orokorra finkatu du.

Ohi bezala, batzordea JAGONET zerbitzuaren bidez jaso diren galderari erantzuten aritu da.

I.3. Dialektologia

Euskararen Herri Hizkeren Atlas egitasmoa

Galdeketa puntuen sarea, galde-sorta eta lan metodologia finkatu ondoren, 1986an probak egin eta 1987an hasi zen Euskaltzaindia inkestak egiten. 145 herri hautatu ziren galdeketerako:

- Euskal Autonomia Erkidegoan: Araban herri 1, Bizkaian 36 eta Gipuzkoan ere 36.
- Nafarroako Foru Erkidegoan: 27 herri.
- Iparraldean: Lapurdin 15, Nafarroa Beherean 18 eta Zuberoan 12.

Inkesta-leku bakoitzean 2.857 itaun egin ziren. Euskaltzaindiak bildurik dituen grabazioak 4.000 ordu gora dira. Egitasmoaren helburua galdera horiekin atlas bat osatzea da, hots, inkestaren ondorioei dagozkien mapak eratzea eta jendearen eskuetan jartzea.

2014an seigarren liburukia kaleratzeko prest utzi da.

Bederatzigarren liburukiaren 66 eta hamargarrenaren 67 galderen prestaketa egin da.

I.4. Onomastika

I.4.1. Onomastika batzorde ahaldundua

2013an, Onomastika batzorde ahaldundua sortu zuen Euskaltzaindiak. Bere zeregina, besteak beste, Onomastika alorreko irizpideak finkatzea da.

I.4.2. Onomastika batzordea

Onomastika batzordeak ponte-izenak, deiturak eta leku-izenak aztertzen ditu; alegia, izendegi ororekiko finkatze, gainbegiratze, irizpen eta ziurtagiri-emate edota aholkularitza lanetan dihardu. Hainbat herritako toponimia-ikerketak eta mapak gainbegiratzen aritu da, eta EUDELen bitartez datozen kontsultak erantzun dira, bai eta erakundeek, elkarteek eta banakakoek egiten dituztenak ere.

Batzordeak Euskal Herriko herrialdeetako Administrazio publikoetatik (EAEko Gobernutik eta diputazioetatik, Nafarroako Gobernutik, Ipar Euskal Herriko udal eta herrietatik) iristen diren eskariak jaso eta erantzun ditu. Besteren artean, Arabako Lautadako kuadrilla, Azazeta, Karanka, Ginea, Berantevilla edota Gereña izenei buruzko txosten, irizpen eta ziurtagiriak prestatu ditu.

Etxebarri Dibiña eta Uribarri Dibiña izenak finkatu dira; Arratzuko, Axpe-Martzakoko, Etxebarriko, Etxegarate, Galdakaoko, Gasteizko, Lemoako eta Ziortza-Bolibarko toponimoak onartu dira, baita Basauriko eta Derioko kale izendegiak ere. Ariz eta Mendoza herri izenak finkatu dira.

Hiru deitura onartu ditu: Donostia (Tornuko umeen deituren kasuan), Periz eta Peritz, eta Morketxo.

Azaroaren 6an, *Euskal Herriko ibaiak / Ríos de Euskal Herria / Les cours d'eau du Pays Basque* liburuak aurkeztu zen. Liburuak Euskal Herriko hidrografia nagusiaren 414 ibaien izenak, eta guztien erabilera egokia, jasotzen ditu. Onomastika gaiak jorratzen dituen Izenak bildumaren laugarren zerbakia da eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin argitaratu du Akademiak.

Euskal Herriko ibaiak Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak paratutako lana da, eta Osoko bilkuraren onespenerekin batera, arau izaera eman zitzaion: Akademiaren 166. araua da. Liburuak biltzen dituen testuak, zerrendak eta

mapak euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez eman dira. Ibaiak bederatzi zerrenda nahiz mapatan sailkatu dira. Aurkezpena hauek egin zuten: Andres Urrutia euskaltzainburuak; Ana de Castro Bizkaiko Foru Aldundiko Euskarazko zuzendari nagusiak; eta argitalpenaren paratzaileek (Andres Iñigo Onomastika batzordeburu ohiak eta Patxi Galé Onomastika batzordeko kideak).

Bestalde, urriaren 7an, "Toponimia Administrazioaren eguneroko jardunean" izeneko ikastaroaren laugarren edizioa egin zen Baionan, Euskararen Erakunde Publikoaren egoitzan. Ikastaroa Mikel Gorrotxategi, Felix Mugurutza eta Nerea Alaba Euskaltzaindiko Onomastika batzordeko kideek eman zuten.



Euskal Herriko Ibaiak liburuaren aurkezpena: ezkerretik eskuinera, Patxi Galé, Andres Urrutia, Ana Castro eta Andres Iñigo

I.4.3. Exonomastika batzordea

Batzorde honek exonimo edo kanpo-izenak aztertzen ditu eta araugintza, irizpen eta aholkularitza lanetan dihardu.

Aurten Antzinateko pertsona-izenak lantzen jarraitu da. Honako araugaiak landu ditu: Mesopotamiako pertsona-izenak eta mitologia; Media, akemenestarrak, Lidia eta Egipto; Itun Zaharreko eta Berriko pertsona-izenak; mundu grekoko pertsona-izenen eta izen mitologikoen eta Partiako eta Ekialdeko erresumetako pertsona-izenak; Antzinateko dinastia eta giza taldeak; mundu erromatarreko, Feniziako eta Kartagoko pertsona-izenak eta izen mitologikoak; eta Ekialdeko eta Europako Antzinateko herrien araugaiak.

I.4.4. Euskal Corpus Onomastikoa (ECO) egitasmoa

Egitasmo honen helburua, euskarazko izen propio edo berezien ahalik eta corpus osoena biltzea da. Horretarako datu-base bat diseinatu eta datuak jasotzen jarraitu da.

Asiako toponimia eta Amerikako toponimia arauetako erregistroak jaso dira. Beste hainbat datu onomastiko erregistratu dira, eta datu basean jaso. Hala, Elena Barrenaren *Ordenanzas de la Hermandad de Guipúzcoa (1375-1643)*; Javier Itulainen *Los nombres de las casas en el valle de Izagaondoa 1600-2001* eta *Oiconimia del Valle de Unciti* artikuluak; Patxi Salaberri Zaratiegiren *Acerca del sufijo toponímico -ain* eta *De toponimia vasco-pirenaica: sobre el sufijo -otz, -oz(e)*; Alfontso Irigoien *Cuestiones de nomenclatura en la elaboración de mapas* eta *Cuestiones de toponimia vasca y circumpirenaica*; Florencio Idoateren *Poblados y despoblados o desolados en Navarra (en 1534 y 1800)*. *Orotariko Euskal Hiztegiaren* corpusean jasotako XVII. mendeko informazio onomastikoa ere bildu da.

Euskal Herriko toponimia ikerketen mapa eguneratu da. Besteak beste, 2.122 leku-eta 329 pertsona- izen, eta 7 deitura jaso dira.

Egitasmo hau Nafarroako Gobernuarekin sinaturiko urteko hitzarmenean espresuki jasota dago, eta horretarako ematen duen diru-laguntzari esker egin ahal izan da.

I.4.5. Gasteizko Toponimia egitasmoa

Euskaltzaindiak Gasteizko Udalarekin sinatutako hitzarmenari esker jarraitu da Udal-barrutiaren toponimia biltzen eta finkatzen. 2014. urtean, *Gasteizko Toponimia V, Arratzua I/ Toponimia de Vitoria V, Arratzua I* liburukian lan egin da. Betoñu, Arkaia, Otazu, Gamiz, Arkauti eta Elorriaga herrietako erregistroekin egin da beharra.

Bestalde, "Gasteizko toponimia, gure leku-izenen gaineko argibideak" izenburupean, hitzaldi bi eskaini zituen urrian Elena Martínez de Madina Euskaltzaindiko Onomastika batzordeko kide, euskaltzain urgazle eta Gasteizko Toponimia egitasmoko teknikariak. Antolatzaileak honako hauek izan dira: Gasteizko Udala, Gasteizko Kontzeju Elkarte eta Euskaltzaindia.

I.5. Literatura

Euskaltzaindiko Literatura arloa bi sail nagusitan ari da lanean. Batetik, herri literaturaren adierazpen desberdinak aztertzen dira. Bestetik, euskal literaturari buruzko ikerketei ekin zaie, aro eta gai ezberdinak jorratuz.

I.5.1. Herri Literatura batzordea

Onomatopeien hiztegian eta Xahoren kantutegian lanean ibili da batzordea.

Bestalde, 2014an bete dira 250 urte Fernando Amezketarra jaio zela. Hori dela-eta, Amezketako Udalak "Fernando urtea" izendatu zuen 2014a, eta bertsolariaren omenezko hainbat ekitaldi sustatu zituen urte osoan zehar. Euskaltzaindia ere Amezketan izan zen, martxoaren 19an, ospakizunekin bat eginez. Herri Literatura batzordeak parte hartu zuen ekitaldi honetan, eta baita egin den bertso jaialdian ere.

Urtero bezala, Xalbador Egunaren antolakuntzan parte hartu da.

I.5.2. Literatura Ikerketa batzordea

Euskal Literaturaren Antologia: Erdi Aroa eta Errenazimentua liburukiaren behin-behineko bertsioa amaitu da. Hain zuzen ere, Antologia horren haritik, 2013an Literaturaren Historiografia. II. Jardunaldiak antolatu zituen jardunaldien materiala argitaratu da *Eusker*a Akademiaren agerkari ofizialean.

Eusebio María Azkueren jaiotzaren bigarren mendeurrena dela-eta, 2013an Lekeition egin zen omenaldiaren hitzaldi sorta ere *Eusker*a agerkarian jaso da.

I. 6. Fonetika eta Fonologia

I.6.1. Ahoskera batzordea

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren EIMA (Euskal Ikasmaterialgintza) programaren barruan, ahoskerari dagokion liburuxkaren ebaluazioari begira egin du lan batzordeak.

2014an, ahoskeraren irakaskuntzaren alderdi praktikoetarako hainbat aditurekin egin dira bilerak eta EIMAKo arduradunei eman beharreko txostena osatu da.

Corpusa eratzeko ikus-entzunezko materialen oinarritzko hautaketa egin da. Hautatuen ahoskera formala neurtzeko fitxak garatu dira.

II. JAGON SAILA

Euskaltzaindiak sorreratik du Jagon Saila, bere helburuetan hizkuntzaren jagotea, zaintzea, alegia, ezarria duelako. Sail hau bi batzordetan dago banatua: Corpus eta Sustapen.

II.1. Corpus batzordea

Euskararen corpusa jagoteaz arduratzen da, helburutzat hizkuntzaren kalitatea harturik. Honen barruan JAGONET zerbitzua dago, galderen eta erantzunen datu-basea.

II.2. Euskalkien Lantaldea

Lantaldea “Euskalkietatik euskara batura: nola osatu Hiztegi Batua” egitasmoa lantzen ari da. Egitasmo horretan sartzen dira orain arte landu diren zerrenda hauek: Bizkaiko eta Nafarroako Sakanako hitzak, eta Labayru Hiztegiko A letratik I letrara arteko hitz-zerrendak.

Aurten Labayru Hiztegiko I eta H letrei dagozkien 334 sarrera landu dira. Bestalde, urtean zehar aztertu eta erabakitako materiala zerrendan gehitu da.

II.3. Sustapen batzordea

Batzordea hizkuntzaren estatusaz arduratzen da. Aurten, XVIII. Jagon jardunaldian aurkeztutako hitzaldiak eta txostenak bildu eta *Eusker*a, 2013, 58, 2 agerkarian argitaratu ziren, “Euskara Nafarroatik” goiburupean.

Bestalde, aurten XIX. Jagon jardunaldia egin zen, “Euskararen biziberritzea Euskal Herriko hiriburuetan” gaiaren inguruan. Hauek izan ziren parte-hartzaileak: Jon Aizpurua, Eduardo Apodaka, Xabier Aierdi, Aitor Zuberogoitia eta Pedro Zuberogoitia. Ondoren, mahai-inguru bat egin zen, honako hauek parte hartu zutelarik: Juan Karlos Izagirre Donostiako alkateak, Jean-Claude Iriart Baionako herriko kontseilariak; Sabin Anuzita Bilboko Udaleko Euskara, Gazteria eta Kirol Saileko zinegotziak; eta Teresa Lasheras Iruñeko Udaleko Hezkuntza eta Kultura alorreko zuzendariak. Andres Urrutia euskaltzainburuak, Juan Karlos Izagirre Donostiako alkateak eta Jean-Baptiste Coyos Jagon sailburuak hasiera eman zioten jardunaldiari. Amaieran, Sagrario Aleman Sustapen batzordeko buruak eta Erramun Osa idazkariak ondorioak irakurri zituzten.

Otsailaren 21ean, "Desagertzeko arriskua duten europar hizkuntzez eta hizkuntza-aniztasuna Europar Batasunean" mintegia egin zen Bilbon. Sustapen batzordeak eta Sabino Arana Fundazioak antolatu zuten elkarlanean eta Erramun Osa batzordearen idazkaria izan zen koordinatzailea. Mintegiaren emaitza *Aniztasunean bat eginik?* izenburuko *Hermes* aldizkariaren 48. zenbakian bildu zen; horren aurkezpena abenduaren 12an egin zen.

Bestalde, azaroaren 20an, Paula Kasaresen *Euskaldun hazi Nafarroan* liburua aurkeztu da, Iruñean. Euskaltzaindiaren Jagon bildumaren barruan argitaratu da, Soziolinguistika Klusterraren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin.



"Euskaldun hazi Nafarroan" libuuraren aurkezpena: Patxi Salaberri, Andres Iñigo eta Paula Kasares

II.4. Joanes Etxeberrri Egitasmoa (Euskararen Historia Soziala-EHS)

Egitasmoak euskarak, eta berarekin harremanetan izan diren hizkuntzek denboran zehar izandako gizarteko izaera-bizierak aztertzen ditu; iraganaren jarioan datozen gizarteko hizkuntzekiko usteak, zientziak, antolaerak, egoerak, jarrerak, jokabideak, aldakuntzak eta abar ikertu nahi ditu, Linguistika, Soziologia eta Historiografiaren artean kokatuz.

Euskal aipamenak arabiar iturrietan liburuan eta metodologia-ereduaren txostenean lan egin da.

Bestetik, Juan Madariaga Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslearen *Sociedad y lengua vasca en los siglos XVII y XVIII* (Euskara eta euskal gizartea XVII. eta XVIII. mendeetan) ikersaioa argitaratu da. Aurkezpena azaroaren 14an egin zen, Donostian, Euskaltzaindiaren XIX. Jardunaldiaren barruan. Liburua euskararen historia soziolinguistikoa jorratzen duen Etxeberrri bildumaren barruan argitaratu du Akademiak, 5. zenbakia da eta Olaso Dorrea Fundazioaren laguntzarekin argitaratu zen.

Aurkezpena honako hauek egin zuten: Juan Madariaga egileak; Mikel Zalbide Euskaltzaindiko Joanes Etxeberrri (Euskararen Historia Soziala) egitasmoaren zuzendariak; Andres Urrutia euskaltzainburuak; eta Ramon Mendibil Olaso Dorrea Sorrerakundeko ordezkariak.



Juan Madariaga, Andres Urrutia, Mikel Zalbide eta Olaso Dorreko Ramon Mendibil.

Ekainaren 19n, *Euskera eta hizkuntzak, gizartean* argitalpena aurkeztu zen, Bilbon. Joseba Intxausti historialaria eta ohorezko euskaltzaina da egilea eta "Etxeberri" bilduma barruan kaleratu da, Kulturaren aldeko Euskal Fundazioarekin laguntzarekin. Aurkezpena Joseba Intxaustik berak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak egin zuten.

Argitalpenak euskara eta hizkuntzen historia sozialaz autoreak 50 urtetan idatzitako artikuluak biltzen ditu. Egilearekin batera, Izaskun Etxebeste eta Koro Segurola Euskaltzaindiko teknikariek birmoldatu dute testua. Emaizta hiru liburukietan jaso da: *I. Aitorpenak. Ekinbideak; II. Jarrerak. Politikak. Pedagogiak; III. Erljioak. Eliza kristauak.*



Andres Urrutia eta Joseba Intxausti

III. EGITURAZKO BATZORDEAK

III.1. Argitalpen batzordea

2014rako Argitalpen alorreko plangintza aztertu da. Erabakitakoa, egoki eta aurreikusitako epe eta aurrekontuan betetzen dela bermatzen du.

III.2. Azkue Biblioteka eta Artxiboa batzordea

Batzordeak Azkue Bibliotekako lanen jarraipena egin du eta, besteren artean, Euskaltzaindiaren artxibo administratiboa antolatzeko lanari ekin zaio. Saillapen Gida (SG) onartu da eta baita Transferentziak arautzeko protokoloa ere.

Xipri Arbelbiderekin hitzarmena sinatu da, bere soinuazko funts artxibistikoak katalogatzeko. Orobat, Iparraldeko Toponimia Ikerketa funtsen digitalizazioa gainbegiratu da.

Pasa den urtean zabaldu zen lan-ildoari segituz, aurten aurkeztu eta onartu dira bizirik dauden euskaltzain ohorezko eta urgazleen fitxa eredu berriak. Orobat, Prentsa Zerbitzuarekin batera antolatu den informazio-bilketa sistema berria (EDB) aurkeztu da, dagokion protokoloa onartuz.

III.3. Informazio eta Komunikazioaren Teknologia batzordea (IKT)

Euskaltzaindiak sortzen dituen edukiei behar bezalako zabalkundea ematea da batzordearen eginkizuna, teknologia berriek eskaintzen dituzten baliabideak erabiliz, eta erabilera-baldintzak aztertuz.

2014an webgunearen bertsio mugikorra prestatu du. Izan ere, Akademiaren webgunearen atal erabiliak eskuko telefonoan eskura izateko, webgunea moldatu du Euskaltzaindiak. Horren ondorioz, webgunearen bertsio arruntan ez ezik, Hiztegi Batua, Orotariko Euskal Hiztegia eta Euskal Onomastikaren Datutegia smartphone eta iPhone motako telefonoentzako egokitutako moldean ere kontsulta daitezke. Eskuko telefonotik webgune osoa ikusteko ere aukera ematen da.


Lana Euskaltzaindiaren Donostiako ordezkarietan garatu da. Aurkezpenean otsailaren 28an egin zen, Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian. Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Alazne Gorrotxategi informatikariak eman zituzten xehetasunak. Otsailaren 28an aurkeztu zen.

Bestalde, deituen jatorriari buruzko informazio zerbitzurako azpiegitura prestatu da. Onomastika arloko datutegien barnerako kontsulta-tresna egokitu da eta webguneako EHHaren kontsulta hobetu da.

Halaber, aurreikusitako argitalpenen bertsio elektronikoak webgeneratu dira.

III.4. Erlea aldizkaria

2014an *Erlea* aldizkariaren zortzigarren zenbakiaren edukiak prestatzen aritu da.



IV. R.M. AZKUE SARIAK

Euskaltzaindiak Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioarekin batera idazle gaztetxoek lanak saritzen ditu urtero. Sariak bi genero ditu: narrazioa eta olerkia. Genero bakoitzak bi maila ditu: A maila, 11 eta 14 urte bitarteko gazteentzat; eta B maila, 15 eta 18 urte bitartekoentzat. R. M. Azkue Sariak idazle gazteak literatura mundura erakartzea dute helburu nagusia.

Hona hemen 2014ko R. M. Azkue saria irabazi dutenak:

| Saria | Lan saritua | Egilea | Ikastegia |
|---------------------------------|--|---|---|
| A: narrazioa 10 - 13 urte | 1) <i>Zergatik Panpox?</i> 2) <i>Irriño baten bila</i> 3) <i>Pianoaren zuri-beltzean</i> | Maddi Aiestaran Naia Aiestaran Nerea Erdozain | Beasain Inst. (Beasain) Beasain Inst. (Beasain) Gabriel Aresti Inst. (Bilbao) |
| Akzesita: | <i>Arranoaren hegaldia</i> | Arantxa Bastida | Urola Ikastola (Azpeitia) |
| A: poesia 10 - 13 urte | 1) <i>Zure izenaren...</i> 2) <i>Baldin eta ez balitz</i> 3) <i>Maitasunaren bidaia</i> | Mikel Labaka Ane Azpiazu Leire Eizmendi | Urola Ikastola (Azpeitia) Urola Ikastola (Azpeitia) Urola Ikastola (Azpeitia) |
| B: narrazioa 14 - 17 urte | 1) <i>Corrado Maccarinelli</i> 2) Eman gabe geratu da 3) Eman gabe geratu da | Oihane Gurrutxaga | Haztegi Ikastola (Legazpi) |
| B: poesia 14 - 17 urte | 1) <i>Itzalen hitzak</i> 2) Eman gabe geratu da 3) Eman gabe geratu da | Johanna Ramirez | Toki Ona Inst. (Bera) |

Bestalde, maiatzean, *Narrazioak eta olerkiak 2013* liburua kaleratu da. Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak eta Euskaltzaindiak deitutako 2013ko R. M. Azkue sarietan irabazle izandako narrazioak eta olerkiak batzen dira liburu honetan. Hauek dira lan horien egileak: Maddi Aiestaran, Olatz Bereziartua, Anne Agirre, Lorea Azpiazu, Naia Ordorika, Aiora Amenabar, Lourdes Ondaro, Markel Txasko, Ane Saiz, Maialen Akizu eta Inhar Esnaola

Epaimahaikideak honako hauek izan dira:

- A kategoria: Yolanda Arrieta, Igone Etxebarria eta Manu Lopez Gaseni.
- B kategoria: Joseba Butroe, Amaia Jauregizar eta Jabier Kaltzakorta



R.M. Azkue 2014 literatura sariketetan saritutako idazle gazteak

3 ERAKUNDEAREN ZERBITZUAK

Euskaltzaindiaren jarduera akademikoa batzorde eta lantaldeen bidez egiten da eta langintza horien emaitzak giza baliabide eta azpiegiturazko zerbitzuekin antolatzen eta gauzatzen dira. Zerbitzu hauek, bestalde, herritarrei nahiz erakundeei erantzuteko ezinbestekoak dira.

III.1. Egoitza eta ordezkariak

Bilboko Plaza Barrian du Euskaltzaindiak egoitza. Bertatik eramaten dira azpiegiturazko koordinazio lanak eta hor kokatzen dira eremu honi lotuta dauden zerbitzuak: Idazkaritza, Ekonomia, Azkue Biblioteka, Onomastika, Argitalpen eta Banaketa, Prentsa eta Komunikazioa eta Informatika eta Telekomunikazio zerbitzuak. Jagonet zerbitzua, aldiz, Donostiako ordezkarietan dago.

Erakundeei, elkarteei nahiz gizabanakoei hurbileko zerbitzuak eskaintzeko asmoarekin, egoitzaz gainera, Euskal Herriko lau hiriburutan -Baiona, Donostia, Gasteiz eta Iruñea- kokatu ditu Euskaltzaindiak bere ordezkariak. Garrantzi handikoak dira jendearekiko harremanak: hizkuntzarekiko kontsultak, ziurtagiriak eta talde-bisitak, besteak beste. Hauek, bai egoitza eta baita ordezkarietatik bideratzen dira.

Ordezkariak

Bilbo, Baiona, Donostia, Gasteiz eta Iruñeko bulegoetatik koordinatzen dira lurralde bakoitzean euskararekiko egiten diren ekintza garrantzitsuenak eta, hala deitua denean, erakundearen lekukotasuna ematen da bere ordezkariaren bidez.

Jendaurreko zerbitzuak

Bost bulegoetara etortzen diren herritarren eskabideak etengabe erantzuten dira ponte-izen eta deituren ziurtagiriak eginez, gehienbat, baina baita ere toponimia eta euskararekiko beste gai ugari aztertuz. Egoitzan eta ordezkarietan ponte-izen eta deiturari buruzko ziurtagiriak egin dira.

Erakundearen bilerak

Bilbon egin ohi dira hileroko Osoko bilkurak eta Zuzendaritzakoak, nahiz eta Donostian eta Iruñean ere tartekatzen diren. Bestalde, batzorde, egitasmo eta lantaldeak ere egoitzan eta ordezkarietan biltzen dira.

Zuzendaritza

Normalean, hilean bi aldiz biltzen da. Erakundearen gobernua, egitasmoen arta izatea eta, orobat, barne jardunbidearen agintea eta erantzukizuna dagokio Zuzendaritzari. 2014. urtean zehar 23 bilera egin ditu.

Batzorde eta egitasmoen koordinazio zerbitzua

Idazkariordea arduratzen da egitasmo eta batzorde akademikoen lanen jarraipenaz eta bateratzeaz. Lan hauen guztien berri ematen die kudeatzaileari, Zuzendaritzari eta, ezarritako epeetan, dagokien Herri Administrazioei, behar diren txostenak prestatuz.

Herri Aginteekin sinatutako hitzarmenen arabera, Batzorde Teknikoarekiko egitasmo-harremanak ere burutzen ditu, kudeatzailearekin batera.

III.2. Azkue Biblioteka eta Artxiboa

Liburuek, aldizkariak eta antzekoak osatzen dute Azkue Bibliotekaren Katalogoa (ABK). Lau prozesu desberdin sartzen dira hemen: erosketa/ eskuraketa, katalogazioa, erabiltzaileekikoak (kontsulta, mailegua, kopia) eta mantentzea. 2014an, 1.474 item eskuratu dira eta horietatik 1.288 ABKn integratu dira. 329 liburu erosi dira.

Bibliotekaren eta Artxiboaren katalogoen mantenua egin da. Hauek dira emaitzak: 1.758 argazki, 107 dossier eta 239 erregistro egin dira Argazki Artxiboan (ABI). 44 item sartu dira Soinu Artxiboan (SOI) eta 4 item Bideo Artxiboan (BID) eta 631 dossier Artxibo Administratiboan (ABA-EUS). Bestalde, Bibliotekaren Katalogoan 2.347 item katalogatu dira eta egunera jarri da.

Xipri Arbelbideren soinuakondarea (ABA-XAR) Katalogoan integratu da. Iparraldeko Toponimia Ikerketa ondarearen (ABA-ITI) bigarren zatia (43 dossier) digitalizatu eta katalogatu da. Juan Mari Lekuonaren zenbait artxibomaterial (LEK) digitalizatu dira, 73 dossier osatuz.

Euskaltzain osoen 29 fitxa berriak webgunean integratu dira. Bizirik dauden ohorezkoen eta urgazleen fitxak egin dira. Dokumentazio-zentroaren biltegi digital berria elikatu da, Prentsa zerbitzuarekin elkarlanean. Euskaltzainen Dossier Bilduma (ABA-EDB) du izena. Bestalde, lehendik zeuden paperezko dosierak digitalizatu eta EDBn integratzeari ekin zaio, aurten 108 egin direlarik.

Liburu-erakusketa bat antolatu da, “Etxea XX. mendeko euskal pentsamenduan” izenekoa, Bizkaiko Foru Aldundiak antolatu eta Euskaltzaindiak parte hartu duen Ondare Jardunaldien barruan.

III.3. Onomastika Zerbitzua

Hiru arlo nagusitan banatzen da lana: deiturak, ponte izenak eta leku-izen edo toponimoak. Erakunde, enpresa zein gizabanakoengandik datoz galderak, eta batzuek berehalako erantzuna behar izaten dute -erregistratzeko jaioberriak, adibidez- eta beste batzuk ikerketa luzeagoa.

2014an, 80 pertsona inguru etorri dira egoitzara kontsultak egitera, gehien bat pertsona-izenen, deituren eta leku-izenen inguruan. Bestalde, 424 telefono dei jaso dira, bai partikularrek eginda, bai eta erregistroek ere. Posta elektronikoz, aldiz, 683 kontsulta egin dira.

Lekuek eta deiturek sortutako zalantzak kontsultatzen badira ere, batez ere pertsona izenak dira interesa handien sortzen dutenak. Hala, 765 kontsulta inguru jaso dira izenei buruz, bai partikularrek eginda, baita bake epaitegiek edo erregistroek ere.

EUDELein indarrean dagoen hitzarmenak jaso bezala, udalei Onomastika alorreko aholkularitza ematen zaie. 2014. urtean honako lanak eman dira: Donostia, Bedia, Ondarroa, Galdakao, Idiazabal, Areatza, Arbulu, Arratzu, Axpe-Martza, Atxondo, Azazeta, Berango, Berantevilla, Burgu, Derio, Eibar, Etxebarri, Etxegarate, Gasteiz, Hondarribia, Eibar, Lemoa, Mallabia, Ziortza-Bolibar edota Zornotza.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eskatuta, hainbat lan egin dira: Amurrioko mapari buruzko txostena; Aretxabaleta eta Axpuru agiriak; Azazeta herri izenari buruzko irizpena; Etxebarri Dibiña eta Uribarri Dibiña izenak finkatu dira; Karanka eta Ginea izenei buruzko informazioa; Kinta herri izenari buruzko informazioa; Krispiña herri izenari buruzko irizpena; Muxikako auzo izenei buruzko txostena, Sarria herri izenari buruzko irizpena. Nafarroako Gobernuak Euskarabidearen eskariz, aldiz, Orbaibarko toponimia nagusia, entitate geografikoen izenak, eskualdekatze administratiboari eta hainbat mendi izeni buruzko informazioa landu da.

Arabako eta Bizkaiko foru aldundiek edota Nafarroako Gobernuak Euskarabideak egindako kontsultak ere erantzun dira.

Zerbitzuko arduradunak irratsaio bat egin du Bizkaia Irratian, Bizkaiko toponimiaz. Eta hainbat hitzaldi eta aurkezpenak egin ditu.

III.4. Argitalpen Zerbitzua

Jarraiko argitarabidea gauzatu du Euskaltzaindiak 2014. urtean:

- *Euskera*, 2013,1. Egileak: Batzuk
- *Euskera*, 2013,2. Egileak: Batzuk
- Euskaltzaindiaren 2013ko *Oroitidazkia* (euskaraz, frantsesez, gaztelaniaz eta ingelesez)
- *Approche textologique et comparative du conte basque dans les versions bilingues de 1873 à 1942*. Egilea: Natalia Zaika
- *Bahnar deitu Salbaiak*. Prestatzailea: Henri Duhau
- *Mongongo Dassanza. Albaitaritzako idazlanak (1698-1898)*. Prestatzailea: Txomin Peillen.

- *Euskera eta hizkuntzak, gizartean (I, II, III)*. Egilea: Joseba Intxausti
- *Sociedad y Lengua Vasca en los siglos XVII y XVIII*. Egilea: Juan Madariaga
- *Euskaldun hazi Nafarroan*. Egilea: Paula Kasares
- *Euskal Herriko Ibaiak*. Prestatzaileak: Andres Iñigo – Patxi Galé
- *Narraioak eta olerkiak, 2013*. Egileak: Batzuk
- *Harri eta Herri # 50 urte*. Egileak: Batzuk. Prestatzailea: Xabier Kintana

Argitalpen hauetaz gain, aurreko urteetan kaleraturiko zenbait lanen bertsio digitalak webgunean integratu dira:

- *Euskera* 2012,1-2. Egileak: batzuk.
- *Euskera* 2012,3. Egileak: batzuk.
- *Itzulpengintza eta itzulpen-praktika Joseba Sarrionandiaren lanetan*. Egilea: Aiora Jaka
- *Koldo Mitxelenaren zinema- eta liburu-kritiketako diskurtso-estrategiak: enuntziatu parentetikoak*. Egilea: Agurtzane Azpeitia
- *Gazteak, aisialdia eta euskara Ipar Euskal Herrian*. Egileak: Jean-Baptiste Coyos – Erramun Baxok
- *Gasteizko toponimia IV: Langraiz*. Egilea: Elena Martínez de Madina
- *Nafarroako ipar-mendebaleko hizkeren egitura geolinguistikoa*. Egilea: Amaia Apalauza
- *Jon Mirande, olerkaria*. Egilea: Txomin Peillen
- *Antoine d'Abaddia, Abbadiaz*. Prestatzailea: Jean-Louis Davant
- *Zaldubi: Gaineratekoen bilduma*. Prestatzailea: Henri Duhau
- *Narraioak eta olerkiak 2012*. Egilea: Batzuk
- *Aiarako toponimia nagusia*. Egileak: Patxi Galé – Mikel Gorrotxategi – Felix Mugurutz

Ia argitalpen guztien salmenta Akademiak egiten du. Ale gehienak banatzaileen bidez saltzen dira; eta gutxiago, azoka, liburu-denda eta zuzeneko eskarien bidez.

Akademia Euskadiko Editoreen Gremioko kide da. Euskaltzaindiaren argitalpen ugari, formatu desberdinetan, www.euskaltzaindia.eus webgunean ikusgai eta erabilgarri daude.

2014an argitaratu edo aurkeztu diren argitalpenen artean jendarteko zabalkunde handikoak izan dira, besteak beste, honakoak: *Zubererazko istorio, alegia eta ipuin irri-egingarri* eta *Sociedad y lengua vasca en los siglos XVII y XVIII*.



III.5. Informatika eta telekomunikazio zerbitzua

Euskaltzaindiko sistema informatikoak eta telekomunikaziozkoak mantentzea da Zerbitzuaren helburu nagusia. Hortaz gain, sistema hauek etengabe hobetzeko berrikuntza proiektuak ere bideratu eta koordinatzen ditu, IKT batzordearen agindupean, berrikuntza teknologikoaren arloko Euskaltzaindiko proiektuen zuzendaritza teknikoa bere gain hartuz.

2014an egin diren lanak honako hauek dira :

- Red Hat Enterprise Virtualization (RHEV) plataforma hedatzea- EHHA aplikazioan programazio-akatsak konpontzeko
- Hiztegiak erredaktatzeko erabiltzen den softwarea hobekuntza
- Webguneko edukiak mantentzeko lan bereziak: Euskal Onomastikaren Datutegiko datu-kargak; *Hiztegi Batuaren* datu-baseko entregan oinarritua, webguneko HB eta HBO ataletako edukiak eguneratzea; *Eusker* 2013ko artikuluak webguneratzea; EHHAREN VI. liburukiko esportazioa, argiltapen prozesurako; *Hitz-Elkarketa/2* argitalpen elektronikoaren webguneratzea; EHS Bibliografian datu-kargak; JAGONET galde-erantzunen datu-basearen kargak.

Bestalde, sistema informatikoak mantentzea dagokio zerbitzu honi.

III.6. Prentsa eta Komunikazio Zerbitzua

Zerbitzu honek honako helburu hauek betetzen ditu: Euskaltzaindiaren eta komunikabideen arteko loturak sendotzeko, gizarteak Akademiaren jardueraren berri izatea eta Akademiak, elkarlanean, beste erakunde eta elkarteekin egiten dituen ekintzen eta eginkizunen berri ematea.

Bestalde, euskaltzainen curriculumak egitea eta eguneratzea zerbitzu honi dagokio, webguneko albisteak gaurkotzearekin batera. Oroitidazkia egiten du Idazkariordearekin batera. *Plazaberri* bloga kudeatzen du 2014an, 228 albiste argitaratu dira blogean.

2014an egindako lanen artean hauek aipa daitezke: Jabier Kaltzakorta euskaltzain osoaren sarrera hitzaldia; 12 ohorezko euskaltzainen izendapenak; euskaltzain urgazle eta ohorezko berriei diplomak ematea; euskaltzainen heriotzak (Jose Antonio Retolaza eta Xabier Aranburu); hilberri-txostenak (Karmele Rotaetxe);

Euskaltzaindiaren XIX. Jagon Jardunaldiak; R. M. Azkueren lan argitaratuen argitaraldi elektronikoaren egitasmoaren aurkezpena; Euskaltzaindiaren argitalpenen aurkezpenenak; Fernando Amezketarrari eta Imanol Berriatuari Amezketan eta Elantxoben egin zaizkien omenaldiak; Euskaltzaindiaren Zuzendaritzaren agerraldia Eusko Legebiltzarrean; Azkue Literatura Sariak; edota erakunde eta elkarte askorekin sinatu diren lankidetzeta-hitzarmenak.

III.7. Jagonet

JAGONET Euskaltzaindiaren kontsulta- eta aholku-zerbitzua da. JAGONETen eginkizuna euskararen erabilera zuzena eta egokia eragitea da, euskararen erabilera argitzea, euskaltzaleon lagungarri. Euskaltzaindiaren webgunean JAGONETeko galde-erantzunen datu-basea kontsulta daiteke. Azkenik, euskaltzaleak bilatzen duena hor ere aurkitzen ez badu, orduan Euskaltzaindiari bidal diezaioke bere zalantza JAGONETeko galdelekura. Euskaltzaindiaren Interneteko galdeleku hori posta elektronikoko bidezko zerbitzu zuzena eta banakakoa da eta pribatua galdegilearekiko.

2014ko datuak ondoko hauek dira: JAGONETeko datu-basean 638 galde-erantzun ageri dira webgunean, eta 49.303 aldiz bistaratu dira galde-erantzun horiek. Galdelekuan, berriz, 644 galdera jaso dira eta horietako 640 erantzun dira.

4 HERRI ADMINISTRAZIO ETA ERAKUNDEAK

IV. Aurretik datozen lankidetzak-hitzarmenak

Herri erakundeak

- Eusko Legebiltzarra
- Espainiako Gobernua (Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa)
- Eusko Jaurlaritza
- Frantziako Administrazio Publikoak (Euskararen Erakunde Publikoa - Office Public de la Lange Basque)
- Nafarroako Gobernua (Hezkuntza Departamentuko Euskarabidea)
- Arabako Foru Aldundia
- Bizkaiko Foru Aldundia
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Euskadiko Udalen Elkarte - EUDEL
- Bilboko Udala
- Donostiako Udala
- Gasteizko Udala

Kutxak

- Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa
- Laboral Kutxa
- Gipuzkoako Kutxa Fundazioa
- Caja Vital Kutxa Fundazioa

Komunikabideak

- *Argia* aldizkaria
- *Berría* egunkaria
- Bizkaia Irratia
- *Deia* egunkaria
- *El Correo* egunkaria
- *El Diario Vasco* egunkaria
- EITB
- Euskalerría Irratia
- Euskarazko Komunikazio Taldea
- Iparragirre Editoriala
- *Jakin* aldizkaria
- *Noticias de Gipuzkoa* egunkaria

Elkarteak, erakundeak eta fundazioak

- AEK
- Baionako Mediateka
- Bergarako Irigoyen Patronatua
- Bilboko, Donostiako eta Gasteizko Elizbarrutiak
- Bilbo Zaharra euskaltegia
- Deustuko Unibertsitatea
- Ea-ko Udala
- Elhuyar Fundazioa
- Elkar Fundazioa
- Errioxako Unibertsitatea
- Etxepare Institutua
- Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa
- Euskal Herriko Unibertsitatea
- Euskal Ikasketetarako Fundazio Popularra
- Euskal Kultur Erakundea
- Eusko Ikaskuntza
- Gabriel Aresti Kultura Elkarte
- HABE
- Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea (HAEE – IVAP)
- Ikas Euskal Pedagogia Zerbitzua
- Jabetza eta Merkataritza Erregistratzaileen Elkargoaren Euskal Herriko Lurralde-Dekanotza
- Jakin Fundazioa
- Labayru Euskal Kulturaren Erakundea
- Laneki Lanbide Heziketan euskara sustatzeko elkarte
- Langune Hizkuntza Industrien Elkarte
- Mendebalde Kultura Alkatea
- Mintzola Fundazioa
- Mondragon Unibertsitatea
- Nafarroako Unibertsitate Publikoa
- Olaso Dorrea Sorrerakundea
- Sabino Arana Fundazioa
- Soziolinguistika Klusterra
- Topagunea
- Udako Euskal Unibertsitatea
- Unesco Etxea
- UZEI Terminologia eta Lexikografia Zentroa
- Xiberoko Alkargoa

IV.2. 2014an sinatutako Lankidetzak-Hitzarmenak

Erakundeak

Nafarroako Gobernua

Martxoaren 3an sinatu zen Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuko Euskarabidearen eta Euskaltzaindiaren arteko 2014ko lankidetzak-hitzarmena. Akademiaren izenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak sinatu zuen eta, Euskarabidearen izenean, Maximino Gómez Euskarabidearen zuzendari kudeatzaileak.

Lankidetzak-hitzarmenak urteko lan arloak zehazten ditu. Hala, hitzarmenaren arabera, Nafarroako Gobernuak 2014an 80.000 euro erabili zituen Euskaltzaindiak Euskal Corpus Onomastikoan eginen dituen lanetarako, eta Nafarroan Onomastikako eta Toponimiako lanak egiteko.

Bestalde, Nafarroako Gobernuak egitekoak dira jarraian aipatzen diren lanak: Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuan Nafarroako berezko aldaerak sartzen laguntzea, hizkuntza kalitatearen zerbitzua martxan jartzen laguntza ematea, eta Euskaltzaindiak behar dituen itzulpenak egitea. Lan horiek Euskarabideako langileek egiten dituzte.

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen arabera, Euskaltzaindia da erakunde aholku-emaile ofiziala Nafarroan, euskararen hizkuntza arauak ezartze aldera. Foru Lege berean arautzen da Euskaltzaindiak toponimia gaietan izan behar duen jarduera, toponimia gaien gaineko txostenak emateko erakunde den aldetik.

Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoa (EEP)

Herri Aginteez 2000. urtean egindako Euskal Herriko Hitzarmen Berezian, Euskaltzaindiari euskararen ikerketan duen zeregina aitortzen zitzaion eta, ondorioz, administrazio desberdinek beren laguntzak eman izan dizkiote Euskaltzaindiari. 2005. urteaz geroztik, Euskal Herriko Hitzarmen Bereziari esker, Herri aginteez Euskaltzaindiari ematen dizkioten diru-laguntzak Euskararen Erakunde Publikoak kudeatu ditu.

Maiatzaren 20an, Euskararen Erakunde Publikoak (EEP) eta Euskaltzaindiak 2014-2016 epealdirako hitzarmen-marko berria sinatu zuten Baionan, Akademiaren ordezkarietan. EEPren izenean Frantxua Maitia presidentek sinatu zuen, eta Euskaltzaindiarenean Andres Urrutia euskaltzainburuak. Ekitaldi berean 2014rako betebeharrak jasotzen dituen gehigarria ere izenpetu zuten.

Besteren artean, euskara batuari dagokion puntu bat jaso zen bertan: era didaktiko eta dibulgatiboan, hurrengo urteetan eta Ipar Euskal Herriari begira, Euskaltzaindiak euskara batuaren alorrean egindako lana zabaltzen eta hedatzen saiatuko dira Akademia eta EEP, teknologiak eskaintzen dituen bide berriak erabiliz.

Era berean, 2014. urteko lankidetzaren zehaztasunak, bakoitzaren egitekoak, argitalpen programa eta diru-laguntza zehazten dituen eranskina izenpetu zuten. Honako hauek dira:

- Euskaltzaindiaren argitalpen berriak: *Mongongo Dassanzaren albaitaritzako idazlanak*. Prestatzailea: Txomin Peillen; *Bahnar deitu salbaiak*. Prestatzailea: Henri Duhau. *Approche textologique et comparative du conte traditionnel basque dans les versions bilingues de 1873 à 1942 (W. Webster, J.-F. Cerquand, J. Barbier, R. M. Azkue)*. Prestatzailea: Natalia Mikhailovna Zaika. Piarres Charritonen *Monseigneur Clément Mathieu* lanaren prestaketa ere jaso zen.
- Euskaltzaindiak EEPren eta Eusko Jaurlaritzaren Proiektu Deialdiko argitalpen proiektuen hizkuntza kalitatearen azterketa egingo du
- Euskaltzaindiak aholku emango dio EEPri, toponimoen grafia egokiari buruzko gaietan
- Euskara teknikariei formakuntza ikastaro bat emango dio Euskaltzaindiak.
- IGNko toponimoen normalizatzeko lanaren emaitzak publiko egingo dira. Alegia, IGNko toponimoen arautze lanen berri emanen dute Euskararen Erakunde Publikoak eta Euskaltzaindiak.
- IKAS pedagogia zentroaren argitalpen proiektuen hizkuntza baieztapena egingo da. Euskaltzaindiak eta Euskararen Erakunde Publikoak 2013an prozedura egoki bat jarriko dute abian, IKAS pedagogia zentroarekin elkarlanean.

Bizkaiko Foru Aldundia

Irailaren 11n, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Euskaltzaindiak Akademiaren

egoitzaren 30 urterako lagapen- hitzarmena sinatu zuten. Jose Luis Bilbao Bizkaiko ahaldu nagusiak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak sinatu zuten dokumentua, Aldundiaren Gobernu Kontseiluko kideak eta Akademiako Zuzendaritzako kideak eta lurralde ordezkariak ondoan zituztela.

Ekitaldiaren amaieran, Aldundiak Akademiari honela dioen plaka eman zion: "Oguetalau guizon bear dira icentau Guernicaco batzarrean / eguiteco alegiña an euskeraren ganean. Jose Pablo Ulibarri Galindez, 1832, Done Peru egunean". Beheko partean honakoa irakur daiteke: "2014ko irailaren 11n berretsi deutso Bizkaiko Foru Aldundiak Euskaltzaindiari egoitza honen lagapena".

Plaka hori azaroaren 27an agerian utzi zuten Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Jose Luis Bilbao Bizkaiko ahaldu nagusiak. Ekitaldian hauek ere izan ziren: Josune Ariztondo Kultura diputatua, Xabier Kintana Euskaltzaindiaren idazkaria, Ana de Castro Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara zuzendari nagusia, Erramun Osa Akademiaren idazkariordea eta Joseba Zabaleta kudeatzailea.

Bizkaiko Foru Aldundiak 1985. urtean laga zion egoitza Euskaltzaindiari. Urte horretan, Jose Maria Makua Bizkaiko Foru ahaldu nagusiak eta Aita Luis Villasante euskaltzainburuak sinatu zuten gaur egun Euskaltzaindiaren egoitza den etxearen lagapena bideratzen zuen dokumentua. Bertan, honakoa esaten zen: "Bizkaiko Foru Aldundiak Euskarari ardura eta babes gorena eman nahirik, kasu honetan, Erakunde Gidariari egoitza duin eta egokia emanaz, Bilbo hiriko Plaza Barriarantz aitzina Aldundiaren Jauregia izandako Etxea Euskaltzaindiaren beharrianetarako honen eskuetan uztea erabaki du".



Jose Luis Bilbao diputatu nagusia eta Andres Urrutia euskaltzainburua lagapen-hitzarmena sinatzen.

Hori dela-eta, Makuaren izena presente dago Plaza Barriko egoitzan, bertan Akademiaren esker ona adierazten duen plaka bat jarrita baitago: "Euskaltzaindiak, Jose Maria Makua Zarandona Bizkaiko Diputatu Nagusi jaunari, egoitza hau lagatzea sinatu zuen 10. urteurrenean, esker onez. 1995-7-10".

Udalak

Donostiako Udala

Euskaltzaindiak indarrean dagoen Donostiako kale izendegiaren berrikuspen osoa egingo du, Akademiak gaur egun darabiltzan irizpideen arabera eta koherentzia zainduz. Bestalde, Donostiako Udalak eskatuta, Etnogintza S.L.-k 1995ean egindako Donostiako Toponimia lana oinarri hartuta, Donostiako leku-izenen zerrenda normalizatua eta eguneratua egingo du.

Hori da Donostiako Udalaren eta Euskaltzaindiaren arteko elkarlanaren ondorioz planteatzen den egitekorik behinena, eta horretarako bi urteko iraupena duen lankidetzahitzarmena sinatu dute bi erakundeok. Sinatze-ekitaldia 2015eko urtarrilaren 14an egin bazen ere, dokumentua 2014. eta 2015. urteei dagokie.

Udalaren izenean Juan Karlos Izagirre alkateak sinatu zuen, eta Euskaltzaindiarenean Andres Urrutia euskaltzainburuak. Nerea Txapartegi, Donostiako Udal Gobernuaren Euskara arduraduna, Andoni Sagarna Euskaltzaindiaren Gipuzkoako ordezkaria eta Erramun Osa Akademiaren idazkariordea ere bertan izan ziren.

Hitzarmena aurrera eraman ahal izateko, Donostiako Udalak 25.000 €-ko ekarpena egingo dio Euskaltzaindiari.

Bestalde, Euskaltzaindiak Gipuzkoan dituen egitasmo eta lantalde guztiak batzen



Ezkerretik eskuinera:
Andoni Sagarna, Erramun Osa,
Andres Urrutia, Juan Karlos
Izagirre, alkatea, eta Nerea
Txapartegi, udal-gobernuko
euskara arduraduna.

dituen Luis Villasante Euskararen Ikerguna, XVIII. mendeko Tolare baserria alegia, Donostiako Udalak utzi dio Euskaltzaindiari. Bertara, ordezkaritza ez ezik, Jagonet Zerbitzua, Joanes Etxeberri egitasmoa (Euskararen Historia Soziala) eta Euskaltzaindiaren Hiztegitantza lan egiten duten taldeak ere batu dira.

Gasteizko Udala

Ekainaren 27an, urtebeteko iraupeneko hitzarmena sinatu zuten Gasteizko Udalak eta Euskaltzaindiak. Udalaren izenean, Javier Maroto alkateak eta, Euskaltzaindiarenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak sinatu zuten. Egun berean, ekaineko Osoko Bilkura Gasteizko Udaletxean egin zuen Euskaltzaindiak; hitzarmenaren sinaduran, euskaltzainburua ez ezik, gainerako euskaltzainak ere izan ziren. Gasteizko Udaleko zinegotziak ere joan ziren ekitaldira.

Euskaltzaindiak lehen aldiz bere historian egin zuen bilera bat Gasteizko Udaletxean. Hori dela eta, bi erakundeok opari bana eman zioten elkarri. Euskaltzaindiak Udalari bi liburu eman zizkion: Axularren *Gero* eta Leizarragaren *Testamentu Berria* liburuen faksimileen ale bana. Leizarragaren liburuari dagokionez, 1990ean, Euskaltzaindiak argitaratu zuen edizioaren ale bat zen, hots, Hugo Schuchardt hizkuntzalari alemaniarrak paratutako Leizarragaren

Testamentu Berriaren edizio kritikoa.

Udalak, aldiz, oroigarri bat eman zion Euskaltzaindiari. Honela dio: "Vitoria-Gasteiz Udal Txit Gorenak, eta haren izenean Javier Maroto alkateak Euskaltzaindiari, euskara sustatzearen alde egin duen ibilbide luzea dela eta, hala nola udaletxe honetan Osoko Bilkura egin izanagatik. Esker onez".

Hitzarmen horren bitartez, 60.000 euroko diru-laguntza emango dio Gasteizko Udalak Euskaltzaindiari.

Gasteizko Udala eta Akademia aspalditik ari dira elkarlanean, eta lankidetzaren horren emaitzarik nabarmenena, Gasteizko toponimia ikertzeko egitasmoa da. Horren helburua Gasteizko udalerriko toponimo guztiak sistematikoki jasotzea da, hots, galduta edota desitxuratuta dauden toponimo ugariak berreskuratzea. 1996an hartu zuen bere gain Euskaltzaindiak Gasteizko toponimia berreskuratzeak lana, urte berean Gasteizko Udalarekin izenpetutako lankidetzaren hitzarmenaren jaso zenaren arabera. Patxi Salaberri Zaratiegi euskaltzaina da egitasmoaren zuzendaria eta Elena Martinez de Madina teknikaria.

Eako Udala

Eako herriaren memoria kolektiboa jasotzea xede, Bizkaiko herri horretako Udalak eta Euskaltzaindiak lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten 2014ko maiatzean. Jaso ez ezik, belaunaldien arteko transmisioa bermatu nahi du Udalak, eta horretarako Euskaltzaindiaren tutoretza akademikoa eskatu zuen. Akademiaren izenean, Euskararen Herri Hizkeren Atlaseko lantaldeak hartu zuen ikerketa egiteko ardura, Adolfo Arejita egitasmoaren zuzendaria buru duela.

Euskaltzaindiak 1983. urtean jarri zuen abian *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*a (EHHA) egitasmoa. Hizkuntzaren aldaera desberdinak mapetan agerian emateko egiten dira bereziki hizkuntza atlasak, eta hala da EHHaren kasuan ere. Emaitza askoz aberatsagoa da, baina: bi erakundeok sinatutako hitzarmenaren jaso zenez, "saso bateko euskal hiztunen bizimodua, bizitokia eta pentsaera azaltzeko agertokirik behinena, testigantzarik biziena da. Halaber, garai bateko euskararen lurralde guztietako euskal hiztunen kultur ondarea berreskuratzeak eta zabaltzeko habe eragingarriak ere bada".

Horiek horrela, Euskaltzaindiaren *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*ak, besteak beste, baserri eta itsas munduko ohituretan, lanbide zaharretan, jaietan, antzinako



Javier Maroto, Gasteizko alkatea, eta Andres Urrutia

sinesmenetan, lagunarteko eta familiarteko harremanetan, emakumearen egoeran, ume jolasetan eta abarretan ageri diren hitzak aztertzen ditu.

Hain zuzen ere, Eako herriari dagokion ondare horren zatia bildu nahi du Udalak, belaunaldiz belaunaldi transmititu ahal izateko.

Komunikabideak

***Herria* astekaria**

2014ko ekainaren 3an, *Herria* astekariak eta Euskaltzaindiak lankidetzahitzarmena sinatu zuten Baionan, Akademiaren ordezkarietan. Astekariaren izenean Janbattitt Dirassar presidenteak sinatu zuen, eta Euskaltzaindiarenean Andres Urrutia euskaltzainburuak.

Hitzarmenak bi urteko iraupena izango du eta euskararen eta euskal kulturaren eremuan gauzatuko da.

Besteren artean, Euskaltzaindiak garatzen diharduen Lexikoaren Behatokia egitasmoa elikatzeko asmoz, *Herria* aldizkariaren euskarazko testu-masa Akademiaren eskuetan jarriko dute.

Horretaz gain, hauek dira hitzarmenaren ildo nagusiak:

- Euskaltzaindiak erantzuna emango die *Herriak* eginiko kontsultei, kontsultak euskararen kalitateaz, euskal lexikoaz, gramatikaz, onomastikaz, ortografiaraz, erabilera egokiaz eta, oro har, euskararen araugintzako bestelako gaietarako buruzkoak direnean. Kontsulta horiek bideratzeko orenean, bi erakundeek Euskaltzaindiaren Hizkuntzaren Kalitatearen Behatokia (HIZBEA) zerbitzuaren erabilera sustatuko dute.
- Bi erakundeak elkarlanean arituko dira beren bibliotekako funtsak sendotzeko gisan.
- Erakunde bakoitzak euskararekin eta euskal kulturarekin dituzten funtsak gizarteratzeko lankidetzahitzarmenaren bidez jorratuko dituzte, besteak beste, erakusketak, hitzaldiak, mahai-inguruak eta jardunaldiak elkarrekin antolatuz.

***Karmel* aldizkaria**

Uztailaren 10ean, *Karmel* aldizkariak eta Euskaltzaindiak lankidetzahitzarmena sinatu zuten Bilbon, Akademiaren egoitzan. Aldizkariaren izenean Julen Urkitza zuzendariak sinatu zuen, eta Euskaltzaindiarenean Andres Urrutia euskaltzainburuak. Urrutia eta Urkitzarekin batera, Xabier Kintana



Andoni Sagarna, Andres Urrutia, Jean-Battit Dirassar, *Herriako* zuzendaria eta Jean-Baptiste "Battitu" Coyos



Karmel eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmenaren sinatze-ekitaldia. Ezkerretik eskuinera: Patxi Uribarren, Julen Urkitza, Andres Urrutia eta Xabier Kintana

Euskaltzaindiko idazkaria eta *Karmel* aldizkarian parte hartzen duten hainbat idazle ian ziren: Patxi Uribarren, Luis Baraiazarra, Pilare Baraiazarra, Juan Luis Goikoetxea, Javier Arrieta, Lorea Akaiturri eta Juan Aristondo.

Hitzarmen horrek *Karmel* aldizkariaren eta Euskaltzaindiaren arteko elkarlana sustatzea du xede, euskarari eta euskal kulturaren normalizazioari buruzko proiektu partekatuak gauzatzeko. Euskararen jakitea, erabilera zein haren aldeko sustapenaren ikerketa, dibulgazioa eta sentiberatzea izango dira, batez ere, bi erakundeon arteko hitzarmenaren xede nagusiak.

Besteren artean, hitzarmen horren ondorioz, Euskaltzaindiak garatzen diharduen Lexikoaren Behatokia izeneko egitasmoa elikatzeko asmoz, *Karmel* aldizkariaren euskarazko testu-masa Akademiaren eskuetan jarriko da. Testu-masa hori Hiztegi Batuan egin behar diren azterlanak egiteko ere erabil dezake Euskaltzaindiak.

Horretaz gain, honako puntu hauek jaso ziren hitzarmenean:

- Euskaltzaindiak erantzuna emango die *Karmel*-ek eginiko kontsultei, kontsultak euskal lexikoaz, gramatikaz, onomastikaz, ortografiaz eta euskalkien erabileraren ingurukoak direnean.
- Bi erakundeak publikatzen dituzten argitalpenak elkarren artean trukatzeko dituzte. Era berean, argitalpen-egitasmoak partekatuko dituzte.
- Euskaltzaindiak egoitza nahiz azpiegitura erabiltzeko aukera eskaintzen dio *Karmel*-i, adosten dituzten ekintzetan baliatzeko.

Elkarteak, Erakundeak eta Fundazioak

Sabino Arana Fundazioa

2014ko martxoaren 20an, Sabino Arana Fundazioak eta Euskaltzaindiak bost urteko iraupena duen lankidetzeta-hitzarmena sinatu zuten Bilbon, Akademiaren egoitzan. Sabino Arana Fundazioaren izenean Juan Maria Atutxa presidentek sinatu zuen, eta Euskaltzaindiarenean Andres Urrutia euskaltzainburuak. Haiekin batera, Xabier Kintana Euskaltzaindiko idazkaria eta Irune Zuluaga Fundazioko zuzendaria izan ziren.

Sabino Arana Fundazioaren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzeta euskararen normalizatorako eta euskal kulturaren zabalpenerako proposatuko diren egitasmoen inguruan gauzatuko da.

Hitzarmen horren ondorioz, Euskaltzaindiak garatzen diharduen Lexikoaren Behatokia egitasmoa elikatzeko asmoz, Sabino Arana Fundazioak argitaraturiko euskarazko testu-masa osoa Akademiaren eskuetan jarriko du. Egitasmo hori UZEI, Elhuyar eta EHUKo Ixa taldearekin egiten ari da Akademia.

Hauek dira hitzarmenaren ildoetako batzuk:

- Sabino Arana Fundazioak Euskaltzaindiari egingo dizkio gramatika, lexikografia, ortografia, onomastika eta euskalkien erabileraren inguruko kontsultak eta iradokizunak, eta Euskaltzaindiak kontsulta horiei erantzuna eman edota bideratuko ditu.
- Bi erakundeok publikatzen dituzten argitalpenak elkarren artean trukatzeko konpromisoa hartzen dute.
- Bi erakundeek euskararen jakitean, erabilera zein haren aldeko sustapenaren ikerketan, dibulgazioan eta sentiberatzean egitasmoak partekatzeko konpromisoa hartzen dute.

Euskaltzaindiaren eta Sabino Arana Fundazioaren arteko harremana aspaldikoa



Xabier Kintana, Andres Urrutia, Juan Mari Atutxa eta Irune Zuluaga

da, eta hainbat eginkizunetan gauzatu da. Hala bada, batera antolatu zuten azken ekitaldia 2014ko otsailean egindako mintegia izan zen, "Desagertzeko arriskua duten europar hizkuntzez eta hizkuntza-aniztasuna Europar Batasunean" izenburukoa.

Laneki

Ekainaren 6an, Laneki elkarteak eta Euskaltzaindiak lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten Bilbon, Akademiaren egoitzan. Rikardo Lamadrid Lanekiko presidentek eta Andres Urrutia euskaltzainburuak sinatu zuten.

Bi erakundeok elkarlanean arituko dira euskararen normalizaziorako eta euskal kulturaren zabalpenerako proposatzen diren egitasmoetan. Julen Elgeta Lanekiko diruzaina, Kepa Altube kudeatzailea, Maite Arozena koordinatzailea eta Xabier Kintana Euskaltzaindikoko idazkaria ere sinatze ekitaldian izan ziren.

Laneki Lanbide Heziketan euskara sustatzeko irabazi asmorik gabeko elkarte da. Hetei eta Ikaslan elkarteek sortua, 2001. urtean, bere helburuak honako hauek dira: Lanbide Heziketarako materialak sortzea, euskaratzea eta erabiltzaileen eskura askotariko euskarrietan jartzea, bai eta hiztegi tekniko bat sortzea ere. Bere webgunean 634 material euskaratuta daude eskura, eta material berria ere laster jarriko da, elkarteak sortzen duen heinean. Horrek guztiak sortzen duen corpusa glosario batean dago garatuta.

Besteak beste, sinatutako hitzarmenaren ondorioz, Laneki elkarteak duen euskarazko testu-masa osoa Euskaltzaindiaren eskuetan jarriko du, Akademiak garatzen diharduen Lexikoaren Behatokiaren corpusa aberasteko. Testu-masa



Rikardo Lamadrid eta Andres Urrutia hitzarmena sinatze-ekitaldian.

Elkar fundazioa

Uztailaren 23an, Elkar Fundazioak eta Euskaltzaindiak bost urterako lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten Donostian, Fundazioaren egoitzan. Elkar Fundazioaren izenean Jose Mari Sors zuzendari orokorrak sinatu zuen, eta Euskaltzaindiarenean Andres Urrutia euskaltzainburuak. Euren batera hauek izan ziren ekitaldian: Xanti Jaka, Jon Jaka, Iker Aranburu eta Ana Garmendia (Elkar) eta Xarles Videgain, Xabier Kintana, Erramun Osa eta Joseba Zabaleta (Euskaltzaindia).

Bi erakundeon arteko elkarlana euskararen eta euskal kulturaren sorkuntzarako, sustapenerako, garapenerako eta zabalkunderako proposatzen diren egitasmoen inguruan gauzatuko da.



Elkar Fundazioako eta Euskaltzaindikoko ordezkariak, Mahaian Andres Urrutia eta Jose Mari Sors

Hitzarmenak jasotzen zuen legez, Euskaltzaindiak garatzen diharduen Lexikoaren Behatokia elikatze asmoz, Elkar Fundazioak argitaraturiko euskarazko testu-multzoa Akademiaren eskuetan jarriko duela.

Horretaz gain, honako puntu hauek jaso dira hitzarmenean:

- Euskaltzaindiak erantzuna emango die Elkarrek eginiko kontsultei, kontsultak euskal lexikografiaz, gramatikaz, onomastikaz, ortografiaz eta euskalkien erabileraren ingurukoak direnean. Iradokizunak direnean, Euskaltzaindiak bideratuko ditu.
- Bi erakundeak publikatzen dituzten argitalpenak elkarren artean trukatu dituzte. Era berean, argitalpen-egitasmoak partekatuko dituzte.
- Erakunde biok egoitza nahiz azpiegitura erabiltzeko aukera elkarri eskaintzeko asmoa agertzen dute, adosten dituzten ekintzetan baliatzeko.

Mendebalde Kultur Alkartea

Urriaren 16an, Mendebalde Kultura Alkartea eta Euskaltzaindiak hiru urteko iraupena duen lankidetzahitzarmena sinatu zuten Bilbon, Akademiaren egoitzan. Mendebalderen izenean Kaxildo Alkorta zuzendariak sinatu zuen, eta Euskaltzaindiarenean Andres Urrutia euskaltzainburuak. Maribi Unamuno, Eneko Barrutia, Juan Luis Goikoetxea, Jacinto Iturbe, Xabier Kintana eta Pruden Gartzia ere izan ziren ekitaldian.

Bi erakundeon arteko elkarlana euskararen normalizaziorako proposatzen diren egitasmoen inguruan gauzatuko da, euskararen jakitean, erabileran zein haren aldeko sustapenaren ikerketan, dibulgazioan eta sentiberatzean batez ere.

Mendebalde Kultura Alkartea argitaraturiko euskarazko testu-multzoa Akademiaren eskuetan jarriko duela jasotzen du hitzarmenak, Lexikoaren Behatokia egitasmorako.

Horretaz gain, honako puntu hauek jaso dira hitzarmenean:

- Mendebalde Kultur Alkartea Euskaltzaindiari egingo dizkio gramatika, lexikografia, ortografia, onomastika eta euskalkien erabileraren inguruko kontsultak eta iradokizunak, eta Euskaltzaindiak kontsulta horiei erantzuna eman edota bideratuko ditu.
- Bi erakundeok publikatzen dituzten argitalpenak elkarren artean trukatzeko konpromisoa hartzen dute.
- Euskararen jakitean, erabileran zein haren aldeko sustapenaren ikerketan, dibulgazioan eta sentiberatzean egitasmoak partekatzeko konpromisoa hartzen dute.

ONCE

Euskaltzaindiko katalogoetako obra batzuk Braille sistemara edota itsuek soilik erabiliko dituzten beste formatu batzuetara egokituko dira. Helburu horri begira, Akademiak eta Espainiako Itsuen Erakundeak (ONCE) lankidetzahitzarmena sinatu zuten azaroaren 10ean. Egokitu beharreko lanak bi aldeek batera hautatuko dituzte.

Bestalde, Euskaltzaindiak, ONCEekin elkarlanean, gaztelaniazko testu labur zehatzak gaztelaniatik euskarara itzuliko ditu.

Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Basilio San Gabriel ONCEren lurraldeordezkariak izenpetu zuten lau urteko iraupena izango duen hitzarmena.

Gabriel Aresti Kultura Elkartea

Gabriel Arestiren lanak, ondarea eta obrak ezagutarazteko asmoz, Euskaltzaindiak eta Gabriel Aresti Kultura Elkartea lankidetzahitzarmena sinatu zuten abenduaren 4an. Hitzarmenaren testuan jaso zenez, bi erakundeok "Gabriel Arestiren obra osorik edo zatika berrargitaratuko dute, hitzaldiak, erakusketak eta jardunaldiak antolatzeko borondatea dute, bai eta haren obra eta ekarria testuinguruan kokatzeko bestelako adituen ekarpenak bilatuko eta argitaratuko ere". Elkarlan horren lehenbiziko emaitza egun berean bertan aurkeztu zen jendaurrean: *Harri eta herri* liburuaren berrargitalpena.

Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Meli Esteban Gabriel Arestiren alargun eta Elkartearen ohorezko presidenteak sinatu zuten hitzarmena. Giro lasaian egin zuten, *Harri eta herri # 50 urte* argitalpena aurkeztu ondoren. Gabriel Aresti Elkartearen eta Euskaltzaindiaren ordezkariak eta liburuan parte hartu duten egileetako batzuk ondoan izan zituzten.



Gabriel Aresti Kultur Elkartea eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmenaren sinatze-ekitaldia. Xabier Monasterio, Meli Esteban, Andres Urrutia eta Andere Aresi



Nafarroako Gobernu eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmenaren sinatze-ekitaldia: Maximino Díaz eta Andres Urrutia.



Euskararen Erakunde Publikoa eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmenaren sinatze-ekitaldia: ezkerretik eskuinera Xarles Videgain, Andres Urrutia, Frantxua Maitia eta Bernadette Soulé



Mendebalde eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmenaren sinatze-ekitaldia

5 WEBGUNEAK ETA GIZARTERATZE LANAK

hori *Zientzia eta Teknika Hiztegia* egitasmoa elikatzeke ere balia dezake Euskaltzaindiak.

Hitzarmenak bost urteko iraupena izango du.



Euskaltzaindiaren webguneak 778.447 bisita izan zituen 2014an. Bestalde, webguneako orriek 3.439.086 bistaratze izan zituzten urte berean. Era berean, Akademiaren webgunean gehien bisitatutako edukiak *Euskal Onomastikaren Datutegia* eta *Hiztegi Batua* izan dira. Hauek dira datuak:

| www.euskaltzaindia.eus | 2014 |
|---------------------------------------|-------------|
| 1) Bisitak, guztira | 778.447 |
| 2) web-orrialde bistaratzeak: | |
| Zuzeneko sarbideak webguneako atarira | 188.940 |
| Hiztegi Batua | 771.859 |
| Euskaltzaindiaren arauak | 75.450 |
| JAGONET zerbitzua | 49.303 |
| OEH (Orotariko Euskal Hiztegia) | 360.178 |
| EODA (Euskal Onomastikaren Datutegia) | 1.332.102 |
| Argitalpenen katalogoa | 29.757 |
| Plazaberri bloga | 32.380 |
| Beste guztiak | 597.717 |
| Web-orrialde bistaratzeak, guztira | 3.439.086 |

Hauek dira Euskaltzaindiaren egoitzan izandako bisitak, 2014an:

| | <u>urtarrila</u> | <u>otsaila</u> | <u>martxoa</u> | <u>apirila</u> | <u>maiatza</u> | <u>ekaina</u> | <u>uztaila</u> | <u>iraila</u> | <u>urria</u> | <u>azaroa</u> | <u>abendua</u> | <u>guztira</u> |
|----------------|------------------|----------------|----------------|----------------|----------------|---------------|----------------|---------------|--------------|---------------|----------------|----------------|
| ADMINISTRAZIOA | 10 | 22 | 25 | 22 | 30 | 23 | 19 | 19 | 30 | 28 | 23 | 251 |
| BIBLIOTEKA | 39 | 25 | 22 | 37 | 35 | 31 | 31 | 34 | 50 | 33 | 36 | 373 |
| GUZTIRA | 49 | 47 | 47 | 59 | 65 | 54 | 50 | 53 | 80 | 61 | 59 | 624 |

2014ko bisita estatistikak



6 EUSKALTZAINDIAREN BALANTZE ETA GALDU-IRABAZIEN KONTUA

Oroitidazkian agertzen diren Balantzea eta Galdu-Irabazien kontua PKF ATTEST auditoria etxeak ikuskatu ditu. 2014ko ekitaldiari dagokion txostenean esaten da “2014 urteko kontuek, arlo esanguratsu guztietan, 2014ko abenduaren 31n EUSKALTZAINDIA erakundearen ondarearen eta egoera finantzarioaren irudi fidela adierazten dute eta baita data horretan bukatu den ekitaldiari dagozkion emaitzena ere, aplikagarria zaion informazio finantzarioaren legeriaren arabera, bereziki, bertan agertzen diren kontabilitate-printzipioekin eta arauekin”.

Urte amaierako Balantzea Euskaltzaindiko ondarearen egoera azaltzen duen agiria da, eta Akademiak daukan ondasunen zerrenda zehazten du (Aktiboa), ondare hori finantzatzeko beharrezkoak diren baliabideekin batera (Pasiboa).

- Aktiboak erakundeak dituen ondasunak (eraikuntzak, instalazioak, izakinak, dirua...) erakusten ditu.
- Pasiboan aktiboan bildutako ondasunen finantzaketa iturriak zehazten dira: erakundearen ondare garbia, hornitzaileak, bankuak...

Urteko Emaitzen Kontuak Euskaltzaindiak erreferentziako ekitaldian izandako diru-sarrerak eta gastuak islatzen ditu, eta bien arteko aldea ekitaldiaren emaitza da. 2014ko ekitaldiari dagokionez, hauek dira ondoriorik adierazgarrienak:

- 1.- Euskaltzaindiak ekitaldi orekatua izan du. Jasotako eta gastatutako kopuruak berdintsuak izan dira.
- 2.- Ekitaldi honetan ere (jarraian bost daramatzagu), Euskaltzaindiaren diru-sarrerak urritu dira, Akademiaren jarduna sostengatzeko ardura duten administrazio publikoen ekarpenak murriztu direlako. Aurreko ekitaldiarekin

konparatuz gero, Euskaltzaindiaren berezko jardueraren diru-sarrerak %8 jaitsi dira, eta jaitsiera hori aurreko ekitaldietakoekin batuz gero, azken bost urteotan %34 jaitsi dira diru-sarrerak.

Egoera horren aurrean, Akademiak, ahalegin eta sufrimendu handiarekin, gastuak doitu eta lehenetsunak zehaztu behar izan ditu, eta, orobat, gastuetako kontu-sail guztietan efizientzian oinarritutako kudeaketa-eredua ezarri du.

3.- Azaldutako zailtasunak gorabehera, Euskaltzaindiak 2014. urterako aurreikusitako programa bete du. 2015ean ere horretan segitu nahi du, ematen dituen zerbitzuen, batzordeen eta bideratzen dituen ikerketa proiektuen bitartez gizarteari balioa emanez, horiek guztiak egunetik egunera gero eta kalitate handiagoak izan daitezen eta ahalik eta herritar eta erakunde gehienengana iritsi daitezen.

Euskaltzaindiaren Balantzea eta Galdu-Irabazien kontua

Balantzea (Eurotan)

| AKTIBOA | 2014/12/31 | 2013/12/31 | PASIBOA | 2014/12/31 | 2013/12/31 |
|---|-------------------|-------------------|--|-------------------|-------------------|
| AKTIBO EZ-KORRONTEA | 887.987 | 943.262 | ONDARE GARBIA | 1.602.816 | 1.545.751 |
| Ibilgetu ukiezina | 31.659 | 30475 | Fondo propioak | 1.188.969 | 1.190.111 |
| Patenteak, lizentziak, markak eta antzerakoak | 9.579 | 12.048 | Aurreko ekitaldietako soberakinak | 1.190.111 | 1.191.326 |
| Aplikazio informatikoak | 22.080 | 18.427 | Ekitaldiko soberakina | (1.142) | (1.215) |
| Ibilgetu materiala | 825.846 | 882.305 | Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta ondareak | 413.847 | 355.640 |
| Lurrak eta eraikuntzak | 594.107 | 640.463 | PASIBO EZ-KORRONTEA | - | 73.997 |
| Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala | 231.739 | 241.842 | Epe luzeko hornidurak | - | 73.997 |
| Epe luzeko finantza-inbertsioak | 30.482 | 30.482 | PASIBO KORRONTEA | 286.600 | 352.063 |
| Beste aktibo finantzarioak | 30.482 | 30.482 | Epe laburreko zorrak | 11.078 | 31.059 |
| AKTIBO KORRONTEA | 1.001.429 | 1.028.549 | Beste pasibo finantzarioak | 11.078 | 31.059 |
| Izakinak | 15.053 | 17.361 | Hartzeko komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak | 275.522 | 321.004 |
| Erabiltzaileak eta berezko jarduerarekin lotutako zordunak | 35.205 | 24.902 | Hornitzaileak | 116.668 | 189.119 |
| Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak | 545.942 | 677.387 | Langileria | 25.194 | 13.084 |
| Hainbat zordun | 40.854 | 90.804 | Hartzekodunak, Herri Aginteak | 133.660 | 118.801 |
| Zordunak, Herri Aginteak | 505.088 | 586.583 | | | |
| Epe laburreko finantza inbertsioak | 680 | 680 | | | |
| Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak | 404.549 | 308.219 | | | |
| AKTIBOA GUZTIRA | 1.889.416 | 1.971.811 | PASIBOA ETA ONDARE GARBIA GUZTIRA | 1.889.416 | 1.971.811 |

Galdu-Irabazien kontua (eurotan)

| EKITALDIA | 2014 | 2015 |
|--|--------------------|--------------------|
| Erakundearen berezko jardueraren sarrerak | 2.596.533 | 2.822.208 |
| Salmentak, promozioak eta lankidetzak hitzarmenak | 62.852 | 89.830 |
| Ekitaldiko soberakinari egotzitako diru-laguntzak | 2.533.681 | 2.732.378 |
| Ekizkin bukatuen eta fabrikazioan dauden ekizkinen aldaketa | (2.308) | (2.809) |
| Ustiapeneko bestelako sarrerak | 4 | 478 |
| Pertsonal gastuak | (1.261.309) | (1.272.036) |
| Soldatak lansariak eta antzekoak | (1.043.482) | (990.332) |
| Gizarte-zamak | (291.824) | (281.704) |
| Hornidurak | 73.997 | - |
| Ustiapeneko bestelako gastuak | (1.224.437) | (1.424.357) |
| Kanpoko zerbitzuak | (1.223.859) | (1.421.248) |
| Tributuak | (113) | (2.837) |
| Merkataritza eragiketarik datozen horniduren aldaketak, hondatzeak eta galerak | (465) | (272) |
| Ibilgetuen amortizazioa eta hondatzea | (128.564) | (130.077) |
| Ekitaldiko soberakinari traspasatutako kapital diru-laguntzak | 21.799 | 12.721 |
| Bestelako emaitzak | - | 1.370 |
| USTIAPENEKO SOBERAKINA | 1.718 | 7.498 |
| Sarrera finantzarioak | 268 | 8.447 |
| Balore negoziagarriak eta bestelako finantza-tresnak | 268 | 395 |
| Horniduren eguneratzea | - | 8.052 |
| Gastu finantzarioak | (3.128) | (17.160) |
| Hirugarrenetikiko zorrenak | (3.128) | (17.160) |
| ERAGIKETA FINANTZARIOEN SOBERAKINA | (2.860) | (8.713) |
| EKITALDIKO SOBERAKINA | (1.142) | (1.215) |



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE